


# Aretxagazeta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1999ko abenduak 16 • 181. zka.



Iturririk iturri: Kepa Urrea

Iritzia: Aitor Agiriano



# *Aretxabaleta Okindegia*

Loramendi, 6 ☎ 943 77 17 19 • Mitarte, 1 ☎ 943 77 00 81

## *Errege-opila*

*'Entzun gaur izarrak diguna  
heldu da Errege eguna.  
Hauxe da eskaintzen zaiguna  
Pakea eta Osasuna*



*Zorionak*





Ez da samurra orri gutxi batzutan urte oso bat laburtzea. Gu hortan saiatu gara baina badakigu hainbat berri eta pasadizo utziko genituela jaso barik.

Otsailean jarri zen martxan **Atxabalta telebista**. Kontrako iritzi, kexa eta protesta ugariren artean jarri ere. Ez da batere lan erreza izan bertako langile eta batzorde ki-deentzat, arazo teknikoek gain jendearen aurpegi txarrak eta ezetak jaso behar izan baitituzte sarritan. Orain, berriz, eskualdeko telebista datorkigu. Momentuz ez dute erabaki barruan sartu edo ez baina egiten dutena egiten dutela, konfidantza apur bat merezi dutelakoan gaude. Ez duzue uste?

Martxoan talde berri baten sorrerak ezus-tean harrapatu gintuen. **Euskal presoak Euskal Herrira plataforma** herriko talde eta elkarteek sortu zuten eta sortu zenetik geratu barik ibili da lanean. Orain urte batzuk, inork ez zuen amestu ere egiten alderdi politiko guztietako ordezkariak elkarren ondoan izango zirenik presoan aldeko ekitaldi batean, baina halaxe da. Bistan da euskaldunok elkartzen hasi garela eta elkartasunak ematen duen indarra sekulakoa da. Herritarren eguneroko lan isilak euskal presoak gure artera ekarriko ditu. Lehenxeago edo geroxeago baina ekarriko ditu. Ez izan zalantzarik.

Martxoan, **korrika** ere heldu zen gure herrira. Goizeko bostak ordu egokia ez izan arren, jende ugari bildu zen bertan giroa berotuz. Euskararen aldeko ekintza hauetan parte hartzea polita da baina euskarak noiz behinkako ekintzaz gain, eguneroko berri-ekintza behar du bizitzeko.




Ekainean, berriz, **hauteskundeak** izan genituen. Aurtengo udaletxerako hauteskundeak gainera, berrikuntzaz beteak etorri dira. Batetik, EAJ/EA alderdiek batera aurkeztutako zerrenda izan da, eta bestetik, alderdi popularraren presentzia. Berri aipagarriena, ordea, Euskal Herritarrok taldearen garaipena izan da. Askok ezustekoa hartu zuen eta eurak ere ez zuten hain emaitza onik espero. Udaleko organuen antolaketa euskal alderdien eskuetan geratu da, ea ba giro ona eta lanerako gogoia nagusi diren.

Etxe batzuk bota eta beste batzuk konpondu. Portasolen zegoen "Villa Genoveva" etxe haundiari, agur esan behar izan genion. Etxe zaharrari agur jendeak berriak eros ditzan. **Galartzako dorretxea**, berriz, erabat konpondu eta berriztatuta herritarren oniritzia jasotzeko prest dago. Hemendik aurrera Galartzara sarritan joateko konpromezua hartu beharko dugu, dorretxean kultur ekintza ugari egiteko asmoa baitago.

Azkenik, **kolektore lanak** bukatzeko lan txiki batzuk besterik ez dira falta. Buruhauste ugari sortu digute lanok urtean zehar, baina hemendik urte batzuk barru Deba erreka arrainez beteta ikusten dugunean, eskertuko dugu.

Bukatzeko, Gabon zoriotsuak eta urte berri on desiatzea besterik ez da geratzen. Datorren urtean, urtarrilaren 13an hain zuzen, **itxura aldatuta** itzuliko gara, 2000. urteko efektuak kalterik sortzen ez badigu behintzat, denon gustorako izango ote da...

**Aretxagazetako erredakzioa**

 <p>Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria</p>	 <p>Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria</p>	 <p>Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria</p>
---	--	---

**Okerrak zuzentzen:**

180. alean, Atxabalta telebista Goitebe telebistarekin bat egingo zela aipatu genuen. Behar bada halaxe izango da baina gauzak gehiegixko aurreratu genituen oraindik ez baitago ezer erabakita.

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-konseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Arantza Antxia, Bego Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Bereizibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzailea:** Aitor Urrutia. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.





## Motzean

**10.** Iñaki Sarasua marianistak, aurreko egunean apaiz ordenatua izan ostean, herrian bere lehenengo meza eman zuen.

**11.** Iturrigorri frontoi parean 27 etxebizitza berri egiteko asmoa agertu zuen Gasteizko Arritzeko S.L. enpresak. Durana kalean, berriz, lau atari eraberritu eta salgai jartzea zen helburua.

**14.** Udalak deituta herriko hainbat talde kultural elkartu ziren hirigintza teknikariarekin Zاراia zinemarekin zer egin eztabaidatzeko.

**19.** Euskal Telebistako "Bertatik bertara" programakoak bisitan izan ziren Atxabalta telebistan.

**21.** X. Loramendi literatur lehiaketaren sari banaketa egin zen. Maila altuko 161 lan aurkeztu ziren, 149 ipuin eta 12 grabaketa.

**22.** Almen ikastolako DBHko ikasleek, bizikidetasuna bultzatu asmoz moda desfilea egin zuten. Tartean, Basotxo-ko jubilatutakuen partehartzea izan zen.

**27.** 1999ko Santa Ageda multal dantza entsaioekin hasiak ziren otsailaren 5ean jende aurrean dantzatzeko.



## Urteko lehenengo ez-ohiko osoko bilkura

Urtarrilaren 18an egin zen lehenengo ez-ohiko osoko bilkuran hamar puntu onartu ziren:

1. Gipuzkoa plaza hiriztatzeko lanak enkantera ateratzea.
2. Udalak hiru poliza kontratatzea.
3. Udalak Suradesari Durana 13ko etxebizitza erostea.
4. Aretxabaleta eta Eskoriatzako udalek hitzarmena burutzea Foru Aldundiarekin ikastetxeetan kirol ekintza burutzeko diru laguntza lortzeko.
5. Enpresa berrien ekimena sustatzeko ordenantzaren behin

behineko onarpena.

6. Iturrigorri frontoi parean 27 etxebizitza eraikitzeko dokumentuaren aurkezpena.

7. Udalak Herriko plaza 1eko loka Eusko Jaurlaritzari uztea Kurtzebarri eskolak klaseak eman ditzan.

8. Udaletxeko langileen soldaten igoera eta 1999ko lanorduen onarpena.


9. Udaletxeko behin behineko idazkari eta kontuhartzaile postuak konkurtsora ateratzea.

10. Udala eta LASA arteko hirigintza hitzarmenaren onarpena.

## Saretxo lanean

Ordenagailu berriak erosi eta ekipamendua osatu ostean, urtarrila bukaeran herritarrei zerbitzu egokia eskaintzeko moduan izan ziren Saretxo informatika taldekoak.

Urtean 5.000 pza.ren truke bertako ekipamendu guztia erabiltzeko aukera bazegoen ere, eskaintzarik interesgarri-



ena internetarena izan zen. Urtea ordaintzea interesatzen ez zitzaientzat, berriz, 1.000 pza.ko hileko kuota jarri zuten.



*Zubia*  
Oinetakoak

Z O R I O N A K

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETAK  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

**RKLI**

URKULU, S.L.


Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

**EXPRESS**  
AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 943 79 23 43




## PROTAGONISTAK



### Iñaki Sarasua

Urtarrilean apaiz ordenatua izan zen marianista erlijiosoa

**“Nahiko argi neukan Jesusi jarraitzean zegoela nire zoriontasunaren giltza”**



### Juan Antonio Rodriguez

95-99 urte bitartean alkatea

**“Gure artean giro ona izan da, elkarrenganako errespetua nagusitu baita”**

## Atxabaltarrak txapeldun Peña Zubin

12 taldek parte hartu zuen 98-99ko Peña Zubi txapelketan, Kopyprest talde atxabaltarra izan zen txapelduna. Partiduak Gabonetan jokatu ziren, Ibarra futbol zelaian eta finala urtarrilaren 5ean izan zen.

Hamabi partehartzaileek trofeo dotore bana jaso zuten J.J. Barkero Errealeko jokalaria atxabaltarraren eskutik. Alberto Luelmok, berriz, sinpatia saria jaso zuen torneoan izugarrizko lana egin ostean.



## Motzean

- Xabier Lazpiurrek, hiru urte korritu barik egon ostean, berriz txirrindularitzara bueltatzea erabaki zuen. 28 urteko atxabaltarrak, afizionatu mailako Kaiku taldean eman zion hasiera denboraldiari. Lesioek txirrindularitza uztera behartu bazuten ere, kirol honekiko zaletasun handiak eta fisikoki ondo aurkitzeak animatu zuten ostera bizikleta hartzera.
- Joseba Aranak, zilarrezko intsignia jaso zuen UDAn 10 urtetan egindako lanaren erakusgarri.

**“Hemendik bi urtera UDAk hirugarren mailara igokodu”**



Javier Etxeberria  
hamar urtez UDAko delegatua

**“Behin snow-a probatu ondoren, ez da eskiatzera bueltatzen”**



Jokin Romero  
snowboard-az elurretan



**zorionak eta urte berri on**





## Motzean

3. Aurten ere Apotza-Etxebarriko Sailluente ermita jendez bete zen San Blas egunean, meza entzun eta janarien bedeinkapena jasotzeko.
8. Tutorepeko heziketa programaren barruan, Gasteiz, Plaentxi eta Etxebarriko ikastetxeak, Kurtzebarri eskolako proiektua ezagutzera etorri ziren.
12. Atxabalta telebista emititzen hasi zen.
15. Ez-ohiko osoko bilkura ospatu zen udaletxean, liburutegiko laguntzaile postuaren eskakizun aldaketa onartzeko.
18. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzak "Adingabeen familia-harrera" programa ezagutarazteko, sentsibilizazio eta informazio kanpaina aurkeztu zuen.



## Herria hankaz gora kolektore lanekin

ACS enpresa urrian hasi zen Loramendi aldean kolektorearen lehenengo ataleko lanekin. Lan hauek zirela eta otsailaren hasieran, Aretxabaletako hegoaldeko sarreratik Portasol alderaino bakarrik joan zitezkeen eta Araba ibilbideko bi autobus geltokiak zerbitzuz kanpo utzi zituzten.

Lan hauez gain, Altuna eta Uriak bigarren atalekoak ere hasi zuten Arbi Zelai parean. Ez bakarrik hemen, baita Bedarreta auzoan eta Errekabarren kalean ere. Horren ondorioz, kale honetako

autobus geltokia ere zerbitzuz kanpo geratu zen. Beraz, herriko autobus geltoki bakarra denboraldi batean, Beroakoa izan zen.

Aldaketa gehiago ere etorri ziren otsailean, Gernikako plazan egiten zen azoka Gipuzkoa plazara pasatu zen eta Durana kalea egun osoz kotxeei zabaltzea erabaki zen. Aldaketa garrantzitsuenak, ordea, kale hau kotxeak kontrako aldera joateko egokitzea izan zen. Hasieran ohitzea kostatu bazen ere, ondoren ez zen arazo larrik izan.

## Santa Ageda eta aratuste jaiak



Urtero bezala, otsailaren 4an, Santa Ageda multak baserriz baseri ibili ziren kantuan eta borondate eskean. Hurrengo egunean, berriz, Santa Ageda, kaleko etxeetan ibiltzea tokatu zitzairen. Aurten egun gutxi izan zituzten jai giro-rako baina herritar ugari kexatu zen etxafleroak zirela eta.



Aratuste domeka, berriz, otsailaren 14an tokatu zen eta hotz ikaragarria egin arren jendea umoretsu atera zen kalera mozorrotuta. Pailazo, astronauta, "zorro"... betiko mozorroez gain, bitxiak ere ikusi ziren fakirrak, parakaidistak zuhaitz gainean...

# UrKiola

ARGAZKIAK

Herriko plaza, 5-behea  
Tf.: 943 79 39 20


Urkiola argazki dendan gabonetako opariak aurkituko dituzu, zatoz!



Jai zoriontsuak  
eta  
urte berri  
oparoa  
guztiontzat




## PROTAGONISTAK



### Anjel Bergaretxe

HBko zinegotzia 95-99 legealdian (alkatetzarako aurkeztu eta lortu arren ez zioten kargua hartzen utzi)

“ Ez dugu lortu herria udaletxera hurbiltzea ”




### Lorenzo Fernandez

95-99 legealdian PSE-EEko zinegotzia

“Herritar guztiek parte hartu beharko lukete noizbait udaletxean”

## Errasti anaiak Gipuzkoako pilota txapelketan irabazle



Unai eta Ibon Errasti anaiak, senior mailako Gipuzkoako eskuz binakako pilota txapelketan garaile izan ziren. Otsailaren 6an, Zumarragan jokaturako partiduan, Elgetako Aitor Ubera eta Eskoriatzako Unai Iñurrategiren kontra 22-15 nagusitu ziren. Garaipen honekin txapelketa hau irabazi duten hirugarren aldia da.

Unai Errastik, bestalde, pilota erakusketa egitera San Frantziskora joateko aukera izan zuen.

## Motzean

- Arlutz A xake taldeak Prefereente mailan lehen postua eskuratu ondoren, Liga Vascara igotzea lortu zuen. Kategoria hau eskuratzen zuen lehen aldia zen eta taldekideak oso pozik eta mailan mantentzeko asmoz agertu ziren.
- Joseba Larrinaga seigarren postuan geratu zen Portugalen egindako munduko kros txapelketan.
- Bailarako txirrindulariek, otsailaren 13an eman zioten hasiera denboraldiari. Dorletako Txirrindulari Eskolakoek hiru taldeen aurkezpena egin zuten.

“Kirola praktikatzekak aldaketa handia suposatu du nire bizitzan”



Hector Prieto  
boccia eta slalomeko jokalaria

“Zaila da afizionatuetatik profesioaletara saltoa egitea”



Unai Errasti  
afizionatu mailan pilotari

Mitartegarako  
Arientza auzoa  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 17 51  
Gatetxea

**BEGIBO**

**optika**

Loramendi, 10  
☎ 943 79 98 21

**ANDRA MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala  
- Kontablea  
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26

Izozkiteki-Gozotegia

**IZOZKITEGI**

Otalora, 11  
Tfnoa: 943 79 93 58  
ARETXABAleta



# Motzean

1. Arau subsidiarioen hasierako onarpena eta Arri-zeko S.L. eta Udalaren arteko hitzarmena izan ziren gai nagusiak ez-ohiko osoko bilkuran.
4. Arau subsidiarioei zegozkien planoak ikusgai jarri ziren udaletxean, herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izateko.
5. 1. solairuan zegoen udaletxeko ongizate saileko bulegoa, beheko solairura pasatu zuten. Era berean, udaletxeko lorategitik sarrera berria egin zen.
12. Parrokiako Liturji Batzordeak, hildakoen alde ematen diren mezei buruzko araudia atera zuen.
15. Etxebizitzen inguruko gaiak eta interes sozialerako enpresen ekimenen izendapena izan ziren nagusi ohiko osoko bilkura honetan.
18. Udaletxeko gizarte zerbitzuak, 1999-2000 denboraldirako 3. adinekoendako antolatutako aukerak kaleratu zituen.
26. Aretxabaletako komunikabideak-L. elkarteak urteroko batzar orokorra egin zuen. Bertan, 1998an egindakoari errepasoa eman eta 1999ko egitasmo eta aurrekontuak aurkeztu ziren.

## Presoen aldeko herri plataformaren sorrera

Udala osatzen zuten alderdi politikoez, PSEk ezik, eta Senideak eta Amnistiaren aldeko komiteak, herriko talde eta elkarte guztiei bilera egiteko deialdia luzatu zuten martxoaren 15ean.

Bertan, euskal presoen arazoa konpondu ordez, larriagotzen zihoala adierazi zuten. Espainiar gobernuak presoei dagokien legea ez zuela betetzen ikusita, politikoen eskuetatik herritar guztien eskuetara pasatu beharra zegoela arazoa esan zen.

Lehenengo bilera honetan 16

bat taldeetako ordezkariak bildu ziren, baina etortzerik izan ez zuten beste askok ere euren oniritzia eman zuten.

Sortu berri zen plataforma honen lehenengo ekintza, martxoaren 26ko manifestazioa izan zen. Euskal Presoak Euskal Herrira lema izan zuen ekintzan herritar ugari hartu zuen parte. Bukarant M<sup>a</sup> Asun Bengoak, Kepa Urria presoaren emazteak, Senideak izenean eta Joseba Larrinagak plataformarenean, idatzi bat irakurri zuten.



## Korrika 11

Korrikaren 11. edizioa, martxoaren 25ean pasatu zen Atxabaltatik. Goizaldeko 4:50ean, ohean egoteko ordua



bazen ere, jende ugari bildu zen Korrika pasatzen ikustera eta nola ez, baita korrika egitera ere. Atxabaltarrok Mugarri hartu genuen lekuko eta 3 km.tan zehar herriko hainbat taldek eraman zuten.

### Farma bizi

Gabon  
Zoriontsuak

Loramendi, 8 Tfnoa/Faxa:  
943 77 18 18

### BASABE jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tfnoa: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

### IRIARTE

Umeen denda  
eta  
lentzeria



Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 10 96

### OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
ARETXABALETAKO



## PROTAGONISTAK



### Adolfo Etxebarria

Eako zinegotzia 95-99  
legealdian

“ Nire eginkizunik  
nagusiena  
lanpostuak sortzea  
izan da”



### Jaime García

Kurtzebarri eskolan izan zen  
munduko matematikari azkarrena

“ $\pi$  zenbakia 50 mila  
dezimal baino  
gehiagorekin  
kalkulatzeko  
gertatzen ari naiz”




## Andoni eta Fran Miguel estatuko xake txapelketarako sailkatuta

Andoni eta Fran Miguel anaiak, Espainiar estatuko uni-  
bertsitate mailako txapelketa jokatzeko sailkatu ziren. Fran,  
Euskadiko eta Gipuzkoako unibertsitateko txapelduna izan  
zen eta Andoni, berriz, Bizkaiako unibertsitatekoa. Honez  
gain, Euskadikoan, hirugarren postuan sailkatu ziren.

## Motzean

- Pala eta eskuz binakako pi-  
lota txapelketak antolatu  
ziren. Eskupilotan, 14 bikote  
aritu ziren, palan, berriz, 10.
- Gipuzkoako mendizale fede-  
rakundeak, Murruxio ME-  
arekin batera eskolarteko XII.  
ibilaldi neurtua antolatu zuen.  
Urkulutik atera eta Ugasteiraino  
joan ziren, handik Urrexolara  
jeitsiz.
- San Jose egunez egin zen  
afizionatu mailako XXV. Gor-  
lako igoeran, Iban Sastre eta  
Xabier Lazpiur bikain ibili ziren.  
Biak lehenengo hamarren ar-  
tean helmugaratu ziren, irabaz-  
learengandik segundu gutxira.

“Bizkarreko  
arazoak dituen  
pertsona  
batek  
segituan  
igarriko du  
hobekuntza”



Jose Luis Eraña  
gimnasia terapeutikoa martxan

“Ulma-Cegasa 14 txirrindulari  
gazte osatutako  
afizionatu  
mailako taldea  
da”



Asier Atxa  
Ulma-Cegasa taldeko  
txirrindularia

## GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18  
Aretxabaleta

## Herriko plazan ARTANO

*Girorik onena*

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

## IBARRA



Tabakoa eta  
ikasmateriala

ESTANKOA

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

## AMETS TABERNA

Iparagirre, 4  
Tfnoa: 943 79 01 29  
Aretxabaleta



# Motzean

- 5.** Kurtzebarri eskolako 11 ikasle eta 2 irakasle Ingalaterrako Sheffield hirian izan ziren pazko astean.
- 12.** Hainbat euskal alderdi politiko eta sindikatuk eskatuta, ordubeteko lanuztea egin zuten enpresa eta komertzio askok.
- 16.** Alemaniako Nurenberg hiritik, 15-16 urte bitarteko 25 ikasle etorri ziren Almen ikastolara. Zortzi egunetan zehar Euskal Herriko hainbat txoko ezagutu zituzten.
- 19.** 1999ko aurrekontua, 945 milioi pezetakoa hain zuzen, onartu zen alderdi guztien oniritziz.
- 20.** Aretxabaletako euskal presoak Euskal Herrira plataformak aurkezpen ofiziala egin zuen prentsaren aurrean.
- 20.** Joseba Lopez de Armentiak liburutegiko laguntzaile lanpostu finkoa lortu zuen.
- 23.** 23an hasi eta 30era bitartean literatur astea egin zen Kurtzebarri eskolan. Aste honen helburua, irakurzaletasuna sortu eta genero desberdinen sentikortasuna garatzea izan zen.



## Koruetako elizako berriztea amaituta

Koruetako eliza, lau hilabete zehar lanean aritu ondoren, apirilean inauguratu zen. Kanpoaldean aldaketa handirik ez zuen izan, teilatua orain lau urte konpondu baitzen, kanpandorreko erlojua konpondu eta horma margotu besterik ez ziren egin.

Barruari zegokionez, argitasun egokia jartzearekin batera, hormak berriztu ziren kupulako nerbioetako harria berreskuratuz eta itxita zegoen leiho goti-

koari bidriera jarri zitzaion. Bidriera hau modernoa izan arren, erromesen ezaugarria den oskola eta Santiago apostoluaren gurutzeta ditu. Era berean, santuak txukundu ziren eta aldarean zegoen Errosarioko Amabirjinaren ordez, prozesioetan atera ohi den Santiago apostolua jarri zen, Amabirjinari txoko berezia eginez. Erretaulari zegokionez, Foru Aldundiaren esku egotean, konponketa hurrengorako utzi zen.

## Agur Juan Arregiri



Apirilaren 20an hil zen Madrilen 91 urterekin, Juan Arregi atxabal-tarra. Markole baserrian jaioa, hainbat enpresa sortu zituen Araba aldean eta Alaves futbol taldeko lehen-dakaria ere izan zen. Hiru hitzetan labur daiteke Don Juanen bizitza enpresaria, ehiztaria eta futbolzalea.

Aspaldi joan bazen ere Gasteizera bizitzera, beti izan zuen gogoan bere jaioterria eta UDA elkarteari eta Abesbatzari oso lotua egon zen.

# URBALTZ

## TABERNA

Mitarte, 21 behea

Tfnoa.: 79 79 79

ARETXABALETA

## BASTER-ALDE

## JATETXEA

SASOIKO

JAKIAK

GIRO

ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 943 79-24 58 ARETXABALETA





**Kirolak eta sport modak**  
bat egiten duten lekua

*Leintz Bailarako  
kirol jantzia  
eta materiala*

*Zorionak  
eta  
urte berri on*

**Esko Sport** 

Intxaurxueta, 5  
ESKORIATZA  
943 71 52 96




**EGUZKIGRAF**

inprimategia

*Gabon alaiak eta  
urte berria bakean*

*Zorionak !!*



KOOP. E.  
S.COOP.

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4 • Araba Ibilbidea • Tf. 943 79 18 44 - Faxa: 943 79 29 41  
E-mail: info@eguzkigraf.com • 20550 ARETXABALETA





**Lasagabaster Gazte Moda**

DENDA BERRIA Zerkaosteta 7, ARRASATE, 943-79 86 14



**KIT NIKON 400  
+ PRISMATIKOAK  
DOHAINIK**

**13.900**

+ 2.000 pezetako  
errebelatu txartela



**IKATZ**  
FOTOGRAFIA • IMAGEN



**CANON EOS-300  
Obj. 28-80**

**64.900**

Opari batekin



+ 5.000 pezetako  
errebelatu txartela

**GABONETAKO 4 IZARRAK**

**CANON IXUS X-1  
LURROROTAKOA**

**30.900**

+ 2.000 pezetako  
errebelatu txartela



**SAMSUNG 1050 S  
ZOOM 38-105**

**23.950**

+ 2.000 pezetako  
errebelatu txartela

Iturrioz 8, ARRASATE Tlfnoa.: 943 77 04 01



## PROTAGONISTAK



### Ergiña Urzelai

Kooperante lau hilabetez Honduraseko Copa Ruinas herrian

**“Helduen irakasle izatera joan nintzen baina denetik egitea tokatu zait”**




### Mireia

### Uribetxebarria

CIM hizkuntza akademiako irakaslea

**“Hizkuntzak jakitea garrantzitsua da baina betiere gurea alde batera utzi gabe”**



## Barkero Munduko txapelketan

Munduko txapelketa polita jokatu ostean, urrezko kopaz itzuli ziren etxera Jose Javier Barkero eta Espainiar estatuko 20 urtez azpiko selekzioko kideak. Finalean Japoniaren aurka 4 goleko aldeaz nagusitu ziren eta horietako gol bat Barkero, jokalaria atxabaltarrarena izan zen. Horrez gain, beste penalti bat ere sartu zuen atxabaltarrak txapelketan zehar.

## Motzean

- Deba Arroko garaile izan ziren Unai eta Ibon Errasti, Etxabe-Bengoetxea bikote eibartarraren aurka nagusitu ondoren. Partidua Eibarko Asteleena frontoian jokatu zen eta etxekoek 6 eta 22 galdu zuten.
- Iban Sastrek, Saunier Duval taldeko txirrindulariak, etapa bat irabazi eta laugarren postuan bukatu zuen Arabako itzulian. Elite eta 23 urtez azpiko proba horretan, Iban Sastrek, erlojuz kontrako proba irabazi zuen eta ondo aritu zen itzuli osoan zehar.
- Joxemi Elizburuk, Fuenlabrada taldeko txirrindulariak, Euskal Herriko itzulia korritu zuen.

**“Mendia eta abentura ia gure bizibide bilakatu dira”**



**“Iranen hasiko da bidaia, ondoren Torre sin nombre eskalatu eta Nanga Parbat da azken helburua”**

Felix eta Alberto Iñurrategi mendizaleak

**M**obiliario  
**ARENAZA**

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42



• Parrila  
espezialitatea

**GOYARAN ERRETEGIA**

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 943 79 68 57



# Motzean

- 7. Amaia San Vicente eta Maitane Garai atxabalta-rrak eta Haritz Iñurrategi oñatiarra izan ziren sarituak Arrasateko IHES Ekimenak antolatutako komiki lehiaketan.
- 7. Euskal presoak Euskalerriratzeko kanpaina barruan konpromiso eguna antolatu zen. Hori dela eta Aretxabaletako plataformak giza katea antolatu zuen herriko plazan.
- 10. ACS enpresak, bi hilabeteko atzerapenez, lehenengo ataleko kolektore lanak bukatutzat eman zituen.
- 11. Ederlaneko argi-ingar beharrak asetu nahian goi tentsioko kablea jarriko dela herriko lurretan, Oroko lurretan hain zuzen, jakin zen.
- 17. 14 puntu onartu ziren ez-ohiko osoko bilkuran, etxebizitzak egiteko 12.000 m<sup>2</sup>-tik gora erostea erabaki zen.
- 21. Sindikatuek 35 orduko lan astea eskatzeko Euskal Herri osoan grebarako egindako deialdiak, erantzun zabala izan zuen Aretxabaletan. Lantegi gehienak itxita izan ziren.
- 22. Aretxabaletako EH taldeak eta EAJ-EA koalizioak jendaurreko aurkezpena egin zuten.



## Udal bozketarako kanpainen murgilduta

Alderdi politiko bakoitzak bere udal hauteskudeetarako hamairu hautagai aurkezteko epea hilaren 10ean amaituta, honakoak izan ziren zerrendaburuak: EAJ-EA koaliziotik Karmelo Azkoitia; Euskal Herritarrok taldetik Anjel Bergaretxe; Ezker Batuak alkategai gisa Jaime Mugika aurkeztu zuen; PSE-EEK Iñaki Pierrugues eta Alderdi Popularrak Maria Rosario Arrue.

Honen ostean, maiatzaren

28an hasi zen ekainaren 13-rako hauteskudeetarako kanpaina.

Aurten, berrikuntza ugari izan dira kanpainen: alde batetik, eta aipatu bezala EAJ eta EA alderdiek zerrenda bateratua aurkeztu izana, eta beste aldetik, Alderdi Popularraren presentzia. Izan ere, lehenengo aldia izan baita aurtengoa popularrek Aretxabaletan udal txerako hautagaia aurkeztu dutena.

## Euskararen eguna eta Otala Zelaiko erromeria



Eguraldi eskasa egin arren, jende ugari hurbildu zen hilaren 22an Euskararen egunera-

ko antolatutako ekitaldietara. Plazako arkupeetan egindako baba janean ere 200 lagun inguru elkartu ziren.

Otala Zelaiko erromeria ere maiatzean ospatu zen, hurrengo egunean hain zuzen. Hemen ere jende ugari hartu zuen parte nahiz eta hotz egin. Jendea, bertan bazkaltzera animatu zen baita ondorengo dantzaldira ere.

## ERREKABARREN merkatal zentruan

erosten duzuen dendetan, txartel bat emango zaizue

## Gabonetako otar baten

zozketan parte hartzeko

*Gabon zoriontsuak*

JUANTXO URDAITEGIA  
 MARI KARMEN OINETAKO DENDA  
 IRUDI ILEAPAINDEGIA  
 MIREIA ARRAINDEGIA  
 LEINTZ-ROSI  
 ERREKABARREN FRUITATEGIA



## PROTAGONISTAK



### Ana Belen Hidalgo eta Igor Bastardo

Herriko katastroa  
eguneratzen ibili zen bikotea

**“Emakume batek  
etxebizitza eta lur  
guztiak bere arimari  
utzi zizkion”**

## Joel Hernández mexikarra garaile Otala-Zelaiko lasterketan

74 korrikalari bildu ziren Urkuluko urtegiaren urtero egiten den Otala-zelaiko lasterketan. Irabazlea Joel Hernández mexikarra izan zen, eta bi segundu falta izan zitzaizkion Kamel Zianik 40'29''tan ezarrita daukan errekorra gainditzeko. Haizeak oso gogor jo bazuen ere, lasterketa bikaina egin zuten korrikalariek.

*Senior  
mailako  
irabazleak,  
ezkerrean  
Joel  
Hernández,  
mexikarra.*



## Motzean

- Jose Javier Barkero Errealeko jokalaria gazteari, zilarrezko intsignia eman zion UDA taldeak. Intsignia, Bixente Etxeandia UDako lehendakariaren eskutik jaso zuen, 20 urtez azpiko munduko txapeldun izateagatik.
- UDako taldeek futbol denboraldiari agurra eman zioten.
- Denontzako VII. kirol jaia ospatu zen, gutxitu fisiko eta psikikoen jaia hain zuzen ere.
- Haur ugari bildu zen hilaren 23an ospatutako txirrindulari festan. Kirol ekitaldi hau iaz ospatu zen lehenengo aldiz eta gaztetatik kirolarekiko zaletasuna eta grina sortzea du helburu.

**“Nik neuk  
kainaz  
arrantzan  
egin dut beti,  
ez dut sekula  
arrain bat  
eskuz  
harrapatu”**



Iñaki Galfarsoro “Herrero”  
errekako arrantzalea

**PAGALDAI**  
Opari denda

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14  
ARETXABAETA

**BENGOA**  
URDAITEGIA

*Bertako okelak eta  
mortzilak*

Durana, 9  
Tfnoa: 943 79 19 79




- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15  
☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28



# Motzean

- 3. Araba ibilbideko 25. zenbakiko etxe berrien eraikuntza hasi zen. Bertan, berrogei etxebizitza egingo dituzte.
- 4. Assa Abloy Iberica multinazional suediarrek seguritateko giltzak egiten dituen Azbe enpresa erosi zuela jakin zen.
- 7. Osoko bilkurak, Gizabi-dea Fundazioari, Pausoka haurtzaindegia eraikitzeko lursail bat doan ematea onartu zuten.
- 10. Aretxagazetari buruz egindako ikestaren emaitzak kaleratu ziren. 44 lagunek erantzun zuten, 29 emakumezko eta 15 gizonezko eta 26 eta 45 urte bitartekoak izan ziren gehientsuenak.
- 18. Iaz data hauetan gertatu bezala, ezezagun batzuek hainbat txikizio egin zituzten hilerrian eta Errekabarren kalean. Hilerrian lore eta kristalak apurtu zituzten eta Errekabarrenen erreka hesi babeslea.
- 19. Jende ugari bildu zen Kurtzebarri eskolako jaiean. Hainbat ekitaldi izan ziren eta baita herri bazkaria ere.
- 29. Jon Molina gaztea apaiz ordenatua izan zen Donostiako Artzai Onaren Kate-dralean gozaiaren eskutik.



## Udal hauteskundeetan EH gailendu zen

Euskal Herriarrok taldea izan zen hilaren 13an izandako udal hauteskundeetan boto gehien jaso zituen alderdia; 1444 herritarrek eman zioten botoa. EAJ eta EA alderdiek zerrenda bateratuak aurkeztu bazituzten ere, 1360 botu lortu zituzten, 84 gutxiago. Hirugarren indarra alderdi sozialista izan zen 425 boturekin, laugarrena Alderdi Popularra 254rekin eta boto gutxien jaso zituena Ezker Batua, 145.

Bozketetan partehartutako jen-

de kopuruari dagokionez, boto-emaleen %72,2 bozkatu zuten; %27,8 abstenitu, beraz.

Honekin guztiarekin, EH taldeak sei zinegotzi lortu zituen, EAJ/EA koalizioak bost, PSE-EEK bat eta Alderdi Popularrak, estreinakoz Aretxabaletan, bat.


Udal hauteskundeekin batera, Batzar Nagusietarako hauteskundeak ere izan ziren, baina ez zen aldaketa nabarmenik izan udal hauteskundeetako emaitze-kin alderatuz.

## Suaren gainean dantzan



Urtero legez, San Juan bezperako gauean hainbat ekitaldi izan genituen. Trikitilariak, Loramendi taldearen dantza emanaldia eta nola ez, su piztea plazan. Horrez gain, eta ohiturari jarraiki, 2000. urteko Santa Ageda mutilek, tantaia jaso zuten eta ostean dantzaldia izan zen Furunda taldearekin.

### Haizea taberna



**Gustoko giroa**

Mitarte, z/g •  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 85 57



**Lurrindegia  
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

**Iber**

★ Loteria ★

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2  
Tfnoa: 943 79 04 39



## PROTAGONISTAK



### **Pantaleon eta Javier Elorza**

Industriarako xaboigileak, lehen Landeta baserrian orain industrialdean

**“Lehen katxalote gantza erabiltzen genuen xaboa egiteko”**



### **Nekane Aginagalde**

Santa Rita komentuko serora

**“Koruetako elizan bi irudi baliotsu daude, San Joakin eta Maria txiki bat”**



## **Mikel Galdos Rolex golf trofeoko garaile**

Ekainaren 6an Arabako larrabea golf zelaian jokatu zen Rolex txapelketa irabazi zuen Mikel Galdosek. Torneora 160 lagun aurkeztu ziren, nagusiak gehienak eta hauen aurrean 76 kolpez nagusitzea lortu zuen 15 urteko atxabalarrak. Sari gisa, 300.000 pezetako Rolex erlojua jaso zuen.

## Motzean


- Jose Javier Barkerok denboraldi berria Errealeko talde nagusian egingo zuela eman zen ezagutzera.
- Ander Odriozola, Ciclos Berristaineko txirrindularia, izan zen Pedro Guenetxea Memorialeko garaile. Itzulian 78 txirrindularik hartu zuten parte eta Dorletako Ama taldetik Aitor Pavonek baino ez zuen sailkatzea lortu.
- Nafarroako itzulian, laugarren gelditzea lortu zuen Iban Sastre txirrindulariak lehengo postuan egon eta gero.
- Iñurrategi anaiek, Lazkano eta Tamayorekin batera Pakistaneko “Torre Sin Nombre” igotzea lortu zuten.

**“Itzulia taldean egin izan dugu, elkarri itxaroten”**



Alfredo Meabe  
“Quebrantahuesos” probako partaide

**“Eibar taldearekin ekainaren 30 arte daukat kontratua. Datorren denboraldiari begira ez daukat ezer garbirik”**



Igor Arenaza  
Eibar taldeko jokalaria

# Marti

RELOJERIA • BIXITATEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16  
Tfnoa: 943 79 01 72

## San Migel erretegia

Apotza auzoa, 23  
Eskoriatza • 943 71 48 71

## ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

Tfnoa: 943 79 88 95  
MANTEKA ANAIK

Bereziki: Harategia  
Urdaitegia  
Fruitategia

## IMANOL JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83



# Motzean

3. Hurrengo lau urterako udalbatza eratu zen. Bertan, Euskal Herritarrok taldeko Anjel Bergaretxe izendatu zuten alkate.
4. Jon Molina apaiz berriak, herrian eman zuten bere lehenengo meza.
5. 1999ko udaleku irekiak martxan jarri ziren. Hiru urtetik hamalau urte bitarteko 197 ume eta gaztetzok eman zuten izena.
5. Hiruatxek, boskarren proiektua abian jartzeko asmoa agertarazi zuen. Honen izena "Unai-2 Erreboluzio zuria" zen eta Indiako Adivasiak izan zituen kontuan.
6. Zisnea omen zen hegazti beltz bat agertu zen Urkuluko urtegian.
16. Giro polita izan zen aurtengo Portasolgo San Lorenzo jaietan. Umeendako jolasez gain mus txapelketa eta sokamuturra izan ziren ekintzarik arrakastatsuenak.
19. Copreci kooperatibak, kalitatezko Zilarrezko Q-a jaso zuen Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren eskutik. Coprecik, Kalitatearen Kudeaketarako Eredu Europearraren 450 puntuak gainditu ostean jaso zuen sari hau.

## Diputazioak ezetza Gellaoren eskaerari

Gipuzkoako Foru Aldundiak ezezkoa eman zion Gellao auzoa Eskoriatzatik banandu eta Aretxabaletako udal barrutira eransteari.

Gellao auzoko biztanleek, 1997ko abenduan hasi zituzten Aretxabaletako Udalarekin beharrezko tramitazioak egiten Foru Aldundira eskaera luzatzeko asmoz. Aretxabaletako parte izateko Gellaotarren nahia osoko bilkuran bozkatu ostean eta zazpi zinegotziren aldeko botoarekin,

espedientea Donostiara bidali zen.

Gellaotarrek bereizketa hau eskatzeko orduan hainbat arrazoi eman zituzten, Gellao auzoa eta Eskoriatzaren artean harreman administratiboa dagoela bakarrik argumentatuz. Aldundiak ordea, ezeztatu egin zuen eskaria, beste arrazoi batzuen artean Eskoriatzak azpiegiturretan, ur hornidura eta saneamenduan burutzeko borondatea agertu zuela esanez.



## Partehartze polita Gaztetzeko jaiak

Giro polita sortu zuen herrian uztailaren 3an Gaztetzeko antolatutako jaiak. Goizean goiz hasi eta ordu txikiak arte iraun zuen festak. Goizean dianaren ostean hainbat jolas, poteoa eta eguerdian



bazkaria egin zuten Gaztetzeko kideek. Laurogei lagun inguru bildu ziren bertan. Bazkal ostean, berriz, jolasak eta Abddom taldearen kontzertua. Azkenik gauean beste kontzertu bat, Akulu taldearena, eta pintxadiskoekin dantza saioa.

### DOIKALSE

**Elektroerosio  
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 943 79 82 44

### G U R E A

*taberna  
jatetxea*

Durana kalea  
Tfnoa: 943 79 20 64



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Basabe Industrialdea C  
Pab. Aretxabaleta

Tfnoak: 943 71 21 12  
943 71 22 68

**Aholkularitza**




## PROTAGONISTAK



**Celia Mediavilla**

Kurtzebarri eskolako garbitzailea

**“Burgosera itzultzean, bi gauza oso garrantzitsu utziko ditut hemen: nire iloba eta Kurtzebarri”**



**Luis Ugarte**

Aretxabaletako basozaina

**“Insignis pinua da Aretxabaletan dagoen zuhaitzik ugariena, nahiz eta Euskal Herriko mota gehienak aurki daitezkeen, ale bakan batzuk badira ere”**



## Uztailean futbitoia nagusi

Uztaileko arratsalde eta zapatuetan futbitoia izan zen nagusi Arlutz taberna osteko plazan. Aurten, 22 talde aritu ziren txapelketan. Taldeak bitan egon ziren banatuta, A eta B taldeetan hain zuzen ere. Talde hauetatik guztietatik hamar Aretxabaletakoak ziren.

Iaz lehen aldiz antolatu zen gazteentzako futbito txapelketa, aurten ere jokatu zen. 6 talde aritu ziren norgehiagokan.

## Motzean


- Kiroletzeko graden gainean rokrodomoa jarri zen, 9 m.ko zabalera eta 3,12 m.ko altuera zuen horma zatia hain zuzen.
- Igor Arenazak Eibar utzi eta 2. mailako Logroñes taldean jarraituko zuela datorren denboraldian adierazi zuen.
- Kiroletxeak uztaileko antolatutako kirol ekintzen artean tenisak, igeriketak eta aerobicak izan zuten arrakasta haundiena.
- UDAko preferenteak, bi jokalarri berri eta lehen mailako erregionaletik igotako beste bost izango zituela hurrengo denboraldian jakinarazi zuen.

**“Gazteriari orokorrean futbola gehiago gustatzen zaio, guri ostera ez”**



Jon Lete eta Mikel Arana  
Dorletako Ama taldeko txirrindulariak

**“Hemen inguruan jendeak Albina, Landa eta Legutioko urtegiak aukeratzen ditu piraguan ibiltzeko”**



Oier Aranzabal  
piraguisimo saileko arduraduna

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

**Jose Mari bodegoia**

Eguneko menua

Nafarroa, 6  
☎ 943 79 20 45  
Aretxabaleta

**Etxabe harategia**

*urte berri on guztioi*

Durana 4 ☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 943 77 13 57



Gure aldizkarian 1999ko urtean zehar publizitatea egin duten bezeroak

Aldibi autoak  
Amets taberna  
Amuebladora Mondragonesa  
Andra Mari aholkularitza  
Angelines autozerbitzua  
Arbulo harategia  
Aretxabaleta iturgintza  
Aretxabaleta okindegia  
Aretxabaletako industrialdea  
Aretxabaletako Udala  
Argi-plastic leihoak  
Arkaux altzariak  
Arlutz taberna  
Arrasate komunikabideak  
Arrasate-Aretxabaleta institutua  
Arritzeko S.L.  
Artano taberna  
Autocares La Encina  
Azkarate aroztegia  
Basabe jatetxea  
Bastida akademia  
Baster alde jatetxea  
Begi ondo optika  
Beiralan kristaldegia  
Benetton  
Bengoa urdaitegia  
Berbetan hizkuntzak  
Cim hizkuntzak  
Construlan Arquero  
Consum Eroski  
Deba arroko euskara eta kirol Z.  
Deba Garaiko Mankomunitatea  
Doikalse elektroerosio lanak  
Dorleta taberna  
EAJ/PNV  
Eguzkigraf inprimategia  
Encarna Mendez /Yoga emalea  
Errekabarren merkatal zentrua

Esko sport  
Etxabe harategia  
Euskadiko kutxa  
Euskal Herritarrok  
Eusko Alkartasuna  
Eusko Jaurlaritza  
Express akeitegia  
Ezkutu taberna  
Felix Pagaldai  
Ford Mugarri  
Garbitu garbiketak  
Gemes edertze aretoa  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gipuzkoako Kutxa  
Goyaran jatetxea  
Gurea jatetxea  
Haizea taberna  
Haurrak umeentzako moda  
Hezibide hezkuntza taldea  
Hotel Mondragon  
Ibai-arte  
Ibarra estankoa  
Iber loteria/paperdenda  
Ikatz  
Imanol janari denda  
Iriarte umeen denda  
Izotz taberna  
J.J. iturgintza  
Jakion S.L.  
Jauregi okindegia  
Jon harategia  
Jose Mari bodegoia  
Josu harategia  
Kontseilua  
Kurtzebarri eskola  
L-10 ileapaindegia  
Larringan gidari eskola  
Lasagabaster jantxidenda


Lasai, Miriam Manteca  
Lausitta taberna  
Leibar arrandegia  
Leintz Udal euskaltegia  
Lie opari denda  
Lirain estetika/gimnasioa  
Loramendi kirolak  
Maite ileapaindegia  
Makina Erremintaren institutua  
Mapfre aseguruak  
Maritxu mertzeria  
Martin erloju denda  
Matikua jatetxea  
Meca tailerrak  
Memesa industri hornidurak  
Mendiola erretegia  
Miguel Altuna institutua  
Miren & Zuriñe bitxitegia  
Mitartegarai jatetxea  
Mobiliario Arenaza  
Natur gas  
Ofaben  
Orto + Lagun  
Oskar garajea  
Pagaldai opari denda  
Pausoka haur eskola  
San Migel erretegia  
Taberna Berri jatetxea  
Talleres Norte/Opel  
Tamaio paperdenda  
Txilarra belar denda  
Urbaltz taberna  
Urkiola argazki denda  
Urkulu industria hornikuntzak  
Zaraia taberna  
Zenbaki aholkularitza  
Zubia oinetakoak

# Zorionak eta urte berri on guztioi!

Eskerrik asko zuen kolaborazioagatik



## Abuztuan Andramaixak



Abuztuak Andramaixak ekarri zituen. Jende ugari bildu zen lau egunetan zehar egindako jaietan eta zer ikusia ere izan zen. Umeentzat, jolasak eta antzerkiak barra-barra eta nagusientzat, urteroko ekintzak mus txapelketa, sokamuturra, pilota partiduak, txirrin-dulari lasterketa...

## Aretxabaletari saria Antiguoko pilota torneoan



Aretxabaletako herria saritu zuten abuztua amaiera aldera Donostiako Antiguoko auzoan. Saria, Antiguoko pilota torneoan jaso zuen Aretxabaletak, finalerdietara beste edozein herrik baino pilotari gehiago eraman zituelako aipatutako torneoan. Atxabaltako pilotariak finalera heldu ez arren, saria merezi izan zuen Aretxabaletak eta Anjel Bergaretxe alkateak jaso zuen berau.





# Motzean

- 6.** Herritar ugari hurbildu zen Arantzazura erromesaldian urtero legez. Jendea oinez, autobusez zein kotxez joan zen Arantzazuko Ama Birjinari bisita egitera.
- 13.** Aretxabaletako Andra Mari Parrokiak, Venezuelako Caracas hiriko gazteei laguntzeko dirulaguntza lortu zuen Eusko Jaurlaritzatik.
- 17.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak dei eginda, herritar ugari bildu zen euskal presoen eskubideen alde eta bake prozesuari laguntzeko egindako hamar minutuko kontzentrazioan.
- 19.** Haur Dantzarien Egunak, haur eta laguntzaile artean, 450 lagun inguru bildu zituen. Herriko Loramendi taldeaz gain Eskoriatza, Arrasate, Bergara, Antzuola, Oñati eta Soroluzeko taldeak izan ziren.
- 20.** Drogomenpekotasun Prebentzio programaren emaitzak jakin ziren. Programa hau, Aretxabaletako Institutuan eta Almen ikastolan eraman zen aurrera.
- 24.** Kolektore lanak zirela eta Mitarte kalean egindako zanga, estali egin zen San Migel jaietarako.

## Udaleko organuen antolaketa eratuta

Udaleko Gobernu Batzordea eratu eta Batzorde Informatiboetako ordezkariak hautatu ziren. Udaleko organuen

antolaketa Euskal Herritarrok eta EAJ/EA koalizioaren eskuetan izango da datozen lau urteotan.

### Gobernu Batzordeko kideak



Anjel Bergaretxe  
EH



Luis Errasti  
EH



Karmelo Azkoitia  
EAJ/EA



J.M. Armentia  
EAJ/EA



Andoni Miguel  
EH

### Batzorde Informatiboetako ordezkariak



Sokorro Unanue  
EH  
Kultura



Xabier Etxebarrieta  
EH  
Ingurugiroa



Andoni Miguel  
EH  
Gizarte Ongizatea




Josu Atxaga  
EH  
Hezkuntza eta Euskara



Luis Errasti  
EH  
Hirigintza eta zerbitzuak



J.M. Armentia  
EAJ/EA  
Kirolak



J.A. Zubizarreta  
EAJ/EA  
Auzoak



Pablo Txintxurreta  
EAJ/EA  
Garapen ekonomikoa



Iñaki Uribetxeberria  
EAJ/EA  
Ogasuna

## Giro aparta San Migueletan

Giro aparta izan zen aurten ere San Migel jaietan. Artisauen eta produktu biologikoen azokak goizean eta arratsaldean dantzak eta Aintzane Aizpuruari omenaldia.



**Angel Zubillaga Garcia-Etxabe**

**Mapfreko ordezkaria**

**Gabon zoriontsua guztioi**

Errekabarren, 3 Tfnoa-Fax: 943 77 11 76 ARETXABALETA




**MAPFRE**

**Aseguroak**




## PROTAGONISTAK



**Jon Molina**

Ekainean apaiztutako gaztea

**“Familia eta lagunentzat Jon, betiko laguna jarraitzen dut izaten, apaiz izatearen estereotipoetatik at”**



**Jose Lonbide**


Produktu biologikoen goraipaillea

**“Era natural batean hazitako ortuko gaiak gainontzekoak baino onuragarriagoak dira osasunerako”**

## Kiroletxeko rokodromoa martxan

Iraileko azkenengo astean jarri zen martxan kiroletxeko rokodromoa. Gasteizko “Horma rokodromos” ibili zen jartzen eta lehengoa ez bezala, rokodromo hau zabala eta altuera txikikoa da. Antza denez, horrelako hor-

mek joko gehiago eskaintzen diote eskalatzaileari eta era berean bakarrik aritzeko ere aproposagoak ei dira. Horma berriak 9 m.ko zabalera eta 3,5 m.ko altuera du eta 1.400.000 pezetako aurrekontua izan zuen.




*Hormak 9 metroko zabalera eta 3,5 metroko altuera du, fibrazkoa da eta azalera poliesterrezkoa du.*

## Motzean

- 1993an Deba arroko Euskara eta Kirol zerbitzuek sortutako “kirola euskaraz” programa, ikasturte honetan Deba arroan zentratzea erabaki zuten. Kiroletako monitore eta entrenatzaileei zuzendutako ikastaroak antolatu zituzten.
- Irailaren 5ean Josu Izagirrek Akitaniako distantzia luzeko triatloian parte hartu zuen. Bertan, 4 km. igerian, 126 bizikletan eta 30 korrikan egin behar izan zituen.
- Irailaren egin zen IX. Groseko Xake Opendean irabazle suertatu zen Fran Miguel.

**“Lehenengo urtea aldaketa eta kategori berrira egokitzeko behar izango dut”**



Iban Sastre profesionaletara salto egin zuen txirrindularia

**“Iron man proba egin nahiko nuke, datorren urtean agian”**



Josu Izagirre iron manera iritsi nahi duen triatleta

**Dorleta  
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8  
☎ 943 79 94 15

*Bazkariak  
eta  
afariak*

**MATIKUA**

Azatza auzoa  
Tfnoa: 943 79 16 68

**CONSUM EROSKI**

*Orain arrandegi  
eta okindegiaz, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
ARETXABALETAKO



# Motzean

1. Leintz Udal Euskaltegiak ikasturte berriari hasiera eman zion. 141 ikaslek eman zuten izena.
2. 257 lagun bildu zen urtero legez udalak antolatu zuten Jubilatuen egunean.
6. Akordeoi Orkestra, Italiako "Citta di Castelfidardo" lehiaketan bigarren postuan geratu zen.
7. Mitch hurakanak sortutako galerak direla eta, Hiruatx taldeak Nikaraguako herrialdeari laguntza luzatu zion. Laguntza hau, etxerik gabe geratutako familiek etxe berriak eraiki ahal izateko izan zen.
17. Iruñean egindako aurtenngo Nafarroa Oinezen, Jesus Atxa atxabaltarra omen du zen. Nafarroako eta bereziki Iruñeako ikastolen alde egindako lanagatik eskerrak eman nahi izan zizkioten.
18. Bi gai erabakitzeko egin zen ez-ohiko osoko bilkura, %2,3ko ordenantza fiskalen igoera eta Kurtzebarri eskolak Pausokaren auzian jarritako alegazioa.
21. Euskal presoak Euskal Herrira plataformak, batzar nagusia egin zuen. Egindako ekintzak berrikusi eta aurrerantzean egin zitezkeenak erabaki nahi izan ziren.

*Lehiaketetarako istorioak idazteaz gain "Gargola" literatur aldizkaria ere kaleratzen du Oscar Mateok beste lagun batzurekin batera*



## Oscar Mateok literatur saria jaso zuen

Oscar Mateo, 26 urteko atxabaltarrak, "Villa de Periana, escritor Francisco Díaz Guerra" VIII. literatur lehiaketa irabazi zuen. Andaluziako Periana herriak antolatutako istorio laburren lehiaketan, "Borges, Cábala, Cinco" kontakizuna aukeratu zuten 102 lanen artean.

Oscar Mateok esandakoa arabera, Foru Aldundian izan zuen lehiaketaren berri

eta saria, 150 mila pezeta polita iruditu zitzaiolako aurkeztu zen. Bi ipuin bidali zituen eta berak uste ez zuena saritu zioten.

laz ekin zion Oscarrek bere istorioak lehiaketetara bidaltzeari, eta izan duen arrakasta ikusi ostean, gogo haundiagoz jarraituko du. Aurrera begira, Gabriel Aresti literatur lehiaketan ere partehartzeko asmoa azaldu zuen.


## III. gastronomi-folklore jaialdia

Jende ugari bildu zen herriko plaza inguruan urriaren 24an egin zen III. gastronomi-folklore jaialdian. Extremadura, Gaztela eta Leon, Andaluzia, Errioxa, Galizia eta Euskal Herria ordezkatzan zituzten dantzari eta musikariak plazan bildu ziren. Kantu eta dantzak ikusteaz gain zer jan eta edan ere egon zen.



Aurten ospatu zen V. patxaran lehiaketan berriz, Ana Mari Aretxaga atxabaltarra izan zen irabazlea.

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

- ◇ Komunerako altzari eta manparak
- ◇ Ispiludun armairu aurrealdek
- ◇ Beirate artistikoak
- ◇ Salarako mahaiak

Herriko plaza, 8 behea  
☎ 943 79 81 78 ARETXABAETA

ESKORIATZA

Tfno 714345



MENDIOLA

Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA

Bazkari  
eta  
afariak

IZOTZ  
Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65  
Aretxabaeta




## PROTAGONISTAK



**Juan Antonio  
Martínez de Agirre**

Udaletxeko kontuartzaillea

**“Oraindik guztiz zehaztu gabe badugu ere, ziurrenik ordenantza fiskalek %2ko igoera izango dute”**



**Tomas Madinabeitia  
eta Gorka Etxabe**

Nekazal zentsua eguneratzen aritu zen bikotea

**“Baserri askotan sukalderraino sartu gara eta etxeko gaztaia, ogia eta txorizoa ere jan ditugu”**

*Arlutz B xake taldekoek erronka polita dute Gipuzkoako 2. mailan mantentzea*



## Gipuzkoako 2. mailako xake ligaren hasiera

Urriaren 16an hasi zuten Arlutz B xake taldekoek liga. Gipuzkoako 2. mailan ari dira aurtengo denboraldian. Taldea, Andoni Carrasco, Kepa Balenziaga, Aitor Bote, Alain Sanz, Joseba Altube eta Esteban Rome-

rok osatzen dute. Maila honetan esperientzia haundiko eta adin nagusiagoko xake jokalaria aritzen direla kontuan izanik, maila berrian mantentzea dela helburua adierazi zuten taldekideek.

## Motzean

- 16 urtetik gorakoentzat squash txapelketa antolatu zuen kiroletxeak urtero moduan.
- Urriaren 16an eman ziztaion hasiera Arlutz futbito txapelketari. Hamar talde aritu ziren elkarren aurka zapatur-zapatur.
- UDAko lehen taldea etxeko partiduak ezin irabazi ibili zen, azken bi partiduak galdu egin baitzituen etxean. Hala eta guztiz, urriaren erdian 8. postuan zegoen sailkapenean, lehen klasifikatuarengandik hiru puntura.

**“Sarritan entrenatzaileak psikologo lana egin behar izaten du”**



Iñaki Ceciaga  
preferenteko entrenatzailea


**“Arnasa hartzen ikasi eta erlajazioa bilatzen du jendeak yogan”**



Encarna Mendez  
yogako irakaslea



**Gabon zoriontsuak  
pasa ditzazuela eta  
Urte Berri On guztioi**





# Motzean

**2.** Udaleko zerbitzuetako langileak kaleko arketa eta espaloiak konpontzen ibili ziren. Berez apurtu eta konpondu beharrean zeudenei, kolektorearen lanen ondorioz apurtutakoak gehitu zitzaizkien.

**22.** Eskoriatza eta Aretxabaletako Udalek, Loramendi euskara elkartearen laguntzaz, paketeria ikastaroa antolatu zuten merkatarientzat. Bertan parte hartu zuten 13 lagunak gustora ibili ziren.

**22.** Azaroko euri jasen eta elurteen ondoren Urkulu urtegiko urak nabarmen egin zuen gora. Azaroaren 12an %58,96 zegoen beteta, hamar egun beranduago, berriz, %63,89.

**29.** Urtero legez, kultura sailak "Negu Kulturala 99" programa atera zuen. Bertan neguan izatekoak diren ikastaro, erakusketa, kale ekitaldi eta beste hainbat ekintza jasotzen ziren. Aretxabaletako postalak ere atera zituzten herritar guztioi banatzeko.

**29.** Deba Garaiko telebista, 2000. urtean martxan jartekoa dela ezagutarazi zen. Goitebe izena izango duen telebista honetan, Deba Garaiko herriek eta Aramaiok parte hartzea espero da.

# Galartzako dorretxea berriztuta

Azaroaren 9an egin zen Mankomunitateak antolatutako Galartzako dorretxearen inauguraketa ofiziala. Mankomunitateko lehendakaria, Victoriano Gallastegi eta jerentea German Berezibar, INEMeko ordezkariak, Lanbide eskolakoak eta Anjel Bergaretxe, Aretxabaletako alkatea eta hirigintza eta kulturako zinegotzi eta teknikariak izan ziren bertan.

Dorretxearen konponketa

lanak bi ataletan burutu ziren, batetik teilatua konpondu zen eta bestetik, lantegi eskola-koek, dorretxearen barrualdea berriztatu zuten.

Dorretxeak lau solairu ditu, laurak hutsik momentuz. Kulturako ekintzak izango dira nagusi bertan, ikastaro trinkoak egiteko eta erakusketak antolatzeko leku aproposa baita Inma Miguel kultur teknikariaren esanetan.



# XI. Loramendi literatur lehiaketa

Urtero legez, aurten ere Loramendi euskara elkarteak, Aretxabaletan bizi edo ikasten duten ikasleentzat XI. literatur lehiaketa antolatu du. Arrakasta haundiko lehiaketa honetan, iaz, 161 lan aurkeztu ziren, 149 ipuin eta 12 grabaketa eta aurten ere lan ugari aurkeztuko direlakoan daude antolatzaileak. Lehen Hezkuntzakoek ipuinak eta poesiak aurkeztuko dituzte eta DBHkoek nagusiei grabatutako kantu, ipuin eta pasadizoak, ohiturak...



*Euskal preso eta errefuxiatuak etxean behar ditugu*

*Urte Berri On benetako pakearen bidetik*




# PROTAGONISTAK



**Miriam Urkia**

UZEI Elkarteko hiztegiilea

“Egunen batean nola idazten edo hitz egiten dugun pentsatu gabe arituko gara euskaraz, hanka sartzeko beldurrik gabe”



**Jose Mari Segovia**

Udal aparejadorea

“Hirigintza alderditik begiratuta eta bailarako herriekin konparatuz oso herri orekatua da”

Hiru mendi tontorretan izarak jarri ziren



## Mendi tontorretara euskal presoen alde

Euskal presoak Euskal Herriera plataformak, UDA kirol elkarteak eta Murruxio eta Zaria mendi taldeen laguntzarekin Asensio, Muru eta Kurtzebarri mendi tontorretara irteera antolatu zuen.


Berrogeitamar lagunetik go-

ra elkartu ziren irteera honetan. Eguraldi hotza izan bazen ere, mendizaleen animoek giroa berotu zuten. Mendi tontor bakoitzean dauden gurutzeetan EPEH izarak jarri zituzten, euskal presoak lehenbailehen Euskalerriratzeko eskatuz.

## Motzean

- Azaroaren 14an ospatutako Behobia-Donostia lasterketa ospetsuan 38 atxabaltarrek hartu zuen parte, hauetatik 5 neskak. Ramon Jausoro, 44. sailkatua, Joseba Larrinaga eta Alfonso Luelmoren denbora onak aipatzekoak izan ziren gainontzeko guztien esfortzua ahaztu gabe.
- Azaroaren 14an lortu zuen UDAko preferenteak etxeko bere lehen garaipena.

“Ibilbideak gorabehera ugari ditu eta indarrak bukaerarako gordetzea komeni dira”



Alfonso Luelmo  
Behobia-Donostia lasterketako partehartzailea

“Txabolarako arduradun bat aurkitzeko ahaleginetan dihardugu”



Iñaki Etxeberria  
Leixargarateko txabolako arduraduna

# ARINSA

Zorionak

**Aretxabaletako industrialdea S.A.**

Basabe poligonoa "EO-10"  
Tfnoa: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19

# HAURRAK

Umeendako moda

Zorionak eta urte berri on





## Motzean

**1.** Euskaltzaindiak, Deba Garaia izenaren ordezkariak Debagoiena jartzea proposatu bazuen ere, momentuz, mankomunitateak ez du erabakirik hartu. Mankomunitateak proposamena ofizialki aurkez dezala eskatu dio.

**9.** Gasteiz-Eibar autopista nondik pasatuko den jakiteko, Foru Aldundiak, maketa jarri zuen udaletxe zaharrear.

**9.** Gipuzkoa plazako hiriztatze lanak bukatuta daudela esan daiteke. Umeenztat jolasteko lekua, eseritzeko jarlekuak eta kotxeentzat aparkalekua jarri dira bertan.

**11.** Pasa den astebukaeran Gaztetxeak, jai giroan esan zion agur Udazkenari. Jende ugari hartu zuen parte larunbateko ekintzetan eta giro polita izan zen egun guztian zehar.

**12.** Hiruatx taldeak Condegako proiektua, Mitch hurakanak sortutako kalteen konponketa, aurrera doala iragarri du. Era berean, Indiako Unai 2 proiektua ere, 120 esne bufala erostea, martxan dela eta Gabonetan bultzadatxo bat ematea nahiko luketela adierazi dute.

**13.** Aste guztian zehar gizabaloreak lantzen ibili dira Kurtzebarri eskolan. Haur eta Lehen Hezkuntzakoek aittite eta amamak izan dituzte kontu kontari. Bigarren Hezkuntzakoek, berriz, gobernuz kanpoko zortzi erakunde ezagutzeko aukera izan dute.

## Hiru auzoetako elizak konponduko dira

Izurieta eta Korueta auzoetako elizak konpondu ostean, orain beste hiruri tokatzen zaie, Arkarazo, Larriño eta Gellaokoei hain zuzen. Foru Aldundiko teknikariek euren iritzi eta aholkua eman ostean, lanok hastea besterik ez da falta.

Lehenengo Arkarazokoa konpontzeari ekingo diote, bertako zorua erabat ustelduta eta oso egoera larrian baitago. Joxe Olabe, parrokiako diruzainaren esanetan, barruko altzari eta santuak ateratzea besterik ez da falta lanei hasiera emateko, seguru asko Gabonetan.

Larriñoko elizari teilatua konponduko diote. Barruan ere txukunketa batzuk egingo dizkiote baina aipagarriena teilatua da. Gellaokoa, berriz, konponketa haundiagoren premian dago. Teilatuz gainera, ba-

rruan ere berriztapen ugari behar ditu. Momentu honetan, badaezpada ere, ez da mezaririk ematen bertan.



Larriñoko elizari teilatua konponduko diote

## EPEH manifestazioa Arrasaten

Datorren domekan, hilak 19, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Oñatiko euskal presoak Euskal Herrira plataformek deituta eta Deba Garaiko hainbat Udalen laguntzaz, manifestazioa anto-

latu da Arrasaten. Beren atxikimendua agertutako udaltako alkateak, pankartaren atzean joango dira ordezkari gisa. Arratsaldeko 7etan Arrasateko plazatik aterako da aipatutako kale irteera.

## Hamairu + Bat, Diego Martiarturen lehenengo liburua

Honako hau Diego Martiartu Aretxabaletan bizi den arrasatearraren lehenengo liburua duzue, labetik atera berria. Bertan hamairu ipuin eta txistez osaturiko azken atal bat aurkituko duzue. Ipuinak laburrak dira, umore beltzaren ikutuarekin eta amaiera nahiko harrigarriekin gehienetan. Lo egiteko arazorik duenarentzat pilula paregabeak dira logurea galtzeko, edo irrifar gaizto batekin loak hartzeko.

Liburu hau, "Putz" aldizkariarekin batera atera da Durangoko azokarako eta harpidetza eginez doan jasoko duzue, bestela ere bera bakarrik erosteko aukera badago.



Joseba Lopez de Armentia



## Galartzako dorretxearen inauguraketa

Datorren zapatuan, hilak 18, Galartzako dorretxea inauguratuko du Udalak. Mankomunitateak azaroaren 9an inauguratu bazuen ere orain, herriko talde, erakunde eta orokorrean



herritarren aurrean egin nahi da. Inauguraketa ekitaldia eguerdiko 12etan izango da baina dorretxea, goizeko 10etatik aurrera bertara hurbiltzen den edonorentzat zabalik egongo da. Bertan, Conrado Masacci italiararren txotxongilo erakusketa eta eskulan erakusketa ere izango dira.

Inauguraketa aurretik, goizeko 11etan, ez-ohiko osoko bilkura izango da Aretxabaletako udaltxeuan. Bertan, Udalbiltzari atxikitzea erabakiko da.

Ekitaldi hauei amaiera emateko alkateak eta auzoetaz arduratzen den zinegotziak, Jose Antonio Zubizarretak, bazkaria izango dute pasa den legealdian auzoetako alkate izandakoekin.

## Galartzako dorretxearen historia

XIV. mendekoa dugu luzaroan gure Bailara eta herriaren begirale izan den Galartzako dorretxea. Eraikin sendo hau harri gorriaren gainean jasota dago, Galartzatarrek Leintzekin zituzten harremanak sendoki sustraituta zeudela erakutsi nahi izan balute bezala. Izan ere, Galartzatarrena Leintz Bailarako leinurik nagusienetarikoa zen Erdi Aroko azkenaldian eta garai hartako ugazaben artean ohitura zen lege, Galartza leinuaren oinetxe hau gotorleku eta babeslekua zen etxea baino. Hor ditugu, oraindik ere, benetako "burdinazko aro" haren aztarna esanguratsuak: saiatearak, leiho zorrotzak eta horma sendoak.

Gerra-garai hartatik gaurdaino asko izan dira dorretxe honek ezagutu izan dituen aldaketak: XIV. mende bukaeran edo XV. mende hasieran bere ate nagusia iparraldeko fatxadatik, oso hezea, ekialdera pasatuko da; 1423. urtean Galartzatarren etsaiak eta Leintz Bailararen nagusiak ziren Gebaratarrek sua eman zioten dorretxeari. Berreraikitze lanetan dorretxea mendealderantz zabalduko da, alde horretako jatorrizko horma eraikin barruan geratuz. Azkenik, XV. mendeko bukaeran dorretxeak goikaldeko zurezko egitura galdu eta harrizko pisu bat irabaziko du.

Dorretxeak geroago jasandako eraldakuntzak Galartzatarren sendiak izandako gorabeherekin lotuta doaz. Aro Modernoan ezagutuko dute Galartzatarrek euren urrezko sasoia. Izan ere, XVI. mendetik XIX.

mendera arte zabaltzen den aro honetan Galartzatarren garrantzia ekonomikoa eta soziala sendotuko da. Etxe honetako semeen artean Leintz Erret Bailarako eta Arrasateko alkateak, Gipuzkoako Diputatu Nagusiak, Santiago Ordenaren Zaldunak edo Leintz Bailarako prokuradoreak aurki ditzakegu; bestalde, Galartzako nagusiak Mendiolako, Marietako eta Galartzako bertako elizen patronoak ziren, errotak, burdinolak, baserriak eta lur-sail handiak zituzten... Ondarea handitu eta oinetxea txikia geratu zen: 1650. urtean, dorretxearen nagusia zen Sancho Galartzakoa hil ondoren, Arrasaten erositako etxera abiatuko dira Galartzatarrek, etorkizuna hirietan baitzegoen. Harrezkero, dorretxea Galartza familiaren ondasun bat besterik ez da izango.

Horrela 1825. urtean, baserri bihurturik, Oñatiko Plaza familiaren eskuetara pasatuko da dorretxea. Izan ere, Galartzako maiorazkoa Joaquin Maria de Plazak, Ana Maria Galartzakoaren eta Juan Xabier de Plazaren semeak, eskuratuko du. Azkenik, 1912. urtean, bertan bizi ziren erreteroeak erosiko dute dorretxea.

1990eko abuztuaren 2an, hutsik eta gure gomutan bazterturik genuela, gure oroi-men ahulari desafio eginez, suak hartu zuen Galartzako dorretxea. Orain, egungo leintzatarroi dagokigu erronka zuzen honi erantzun egokia ematea. Ez dezagun kale egin.

Iñaki Urreta


Inoiz ez dugu

jakingo zenbat

lagundu digun

aurrerapen

honek.





# Motzean

**18-19.** Squash txapelketak aurrera darrai eta dagoeneko final laurdenak jokatu ondoren, finalerdiak eta finala datorren asteburuan jokatu dira. Finalerdietako lehen partidua datorren zapatuan goizeko 10etan izango da eta bertan Alex Etxebarria lezamarrak eta Jose Gorosabel arrasatearrak jokatu dute. Beste klasifikatu biak Juan Antonio Varilla atxabaltarra eta Eduardo Gallastegi zornotzarra dira, hauek 11etatik aurrera arituko dira elkarren aurka. Hurrengo egunez, domekan, 10etatik aurrera jokatu dira 3. eta 4. postua eta honen ondoren finala.

**18.** Euskal presoak Euskal Herrira plataformak beste errebindikazio bat dakarkigu datorren zapatarako. Lehen Erregional mailako UDA-Mondra derbian, bi taldeak Euskal presoak Euskal-Herrira izararekin aterako dira zelaira, Hator hator abestia lagun dutela. Errebindikazio hau arratsaldeko 4etan izango da Ibarra futbol zelaian. Horrez gain, hemendik bi aste barru jokatu den UDA-Zestoa preferente mailako partiduan ere ekintza bera errepikatuko da.

Euskal Ligako Arlutz xake taldeak ligako laugarren ihardunaldia jokatu ondoren, klasifikazioan bigarren postua lortu du, Zuri-Beltza Bilboko taldearen ostean kokatuz. Azkenengo ihardunaldian Gasteizko Ruta de Europa taldearen aurka irabaztea lortu zuen 3-1. Emaitza horrekin, orain artean bi partidu irabazi eta beste bi berdindu egin dituzte. Talde atxabaltarrak momentu onean dagoela erakutsi digu berriro ere. Gainera, Euskal ligan lehen urtea dutela kontuan izanda, lan txukuna egiten ari dira, Fran eta Andoni Miguel, Aitor Alkaide eta Jesus Berezibar taldekideak.

## Iturrigorri frontoian presoek euskalherriratzea eskatu zen


Euskal presoak Euskal Herrira plataformak antolatuta profesional eta afizionatu mailako pilota partiduak jokatu ziren joan den domekan Iturrigorri frontoian. Afizionatuetan etxeko Errasti anaiak eta Idiakez-De Luz zumarragarrak aritu ziren. Errasti anaiak hasieran irabazten joan ziren 13-10. Hortik aurrera, zumarragarrak nagusitu ziren 14-22ko emaitzarekin azken hauen alde.

Afizionatuen ondoren profesionalen txanda iritsi zen. Koka-Taberna bikotea eta Agirre-Zearra bikote bizkaitarra aritu ziren nor baino nor gehiago. Koka eta Tabernak hasieratik hartu zuten

aurrea markagailuan eta bukaera arte eurak izan ziren nagusi. Bizkaitarrek, ordea, ez zioten erraz irabazten utzi eta azkenean emaitza 22-18 izan zen Koka eta Tabernaren alde. Iturrigorri frontoian bildutako 230 zaletuek partiduaz gozatzeko aukera izan zuten, pilotariak tantu politak erakutsi baitzituzten.

Plataformak, UDAko pilota sailari, Asegarceri, Gurea eta Artano tabernei, losu harategiari eta Aretxabaletako herritarrei eskerrak eman nahi dizkie pilota jaialdi hau burutzen laguntzeagatik.

*Pilotari profesionalak ikuskizun haundia sortu zuten Iturrigorri frontoian*




Agirre Artea



Zearra Galdakao



Taberna Lesaka



Koka Donostia

**Presoen Euskal Herriratzea eskatuz, horrelako ekintzak antolatzea zer iruditzen zaizu?**

**Zearra:** Oso ondo. Positiboa da horrelako gauzak errebindikatzea. Nire ustez, herri honen gehiengoak zer nahi duen garbi dago eta orain agintarien lana da hurrengoko pausoa ematea.

**Taberna:** Era asko daude errebindikatzeko eta hau da horietako bat.


**Barruko frontoietara ohituta, nola jokatu duzue Iturrigorri**

**frontoian?**

**Agirre:** Gustora jokatu dugu, nahiz eta partidua ez den irten hain polita. Frontoiari dagokionez, neguan jokatzeko hotz apur bat egiten du baina horma eta zolua jokatzeko ondo daude.

**T:** Nik oso gustora jokatu dut. Horrelako partiduetan, txapelketako partiduak ez direnez eta horrenbeste prezio egoten ez denez, lasaiago jokatzen da. Hala ere, partidu dexentea atera dela uste dut, aurrealdean tanto politak egon baitira.





**“Neuk,  
bada-ez-bada ere,  
esaera zaharrak  
dioen bezala,  
ez dut biharko  
utziko gaur egin  
dezakedana”**

## Apocalypse... now? (apokalipsia... orain?)

Ez naiz Francis Ford Coppola-ren “Apocalypse now” filma arrakastatsuari buruz ariko, lasai; aspaldian, hitzunon ahotan barra-barra dabilen munduaren amaieraren kontuak eman dit hizpidea; izan ere, bateko eklipseak, eta besteko 2000. urtearen hurbiltasunak, zer esan franko eman baitu.

Iritzi anitzen artean, sesioetan sartzeko batere asmorik gabe, gogoeta pareta bururatu zait munduaren azkena dela eta ez dela. Non-dik heldu baduen gai egokia begitantzen zait duda izpirik gabe.

Ez da oraingoa, Azken Epai-  
ketaren egun handiaren etorrera lehenengo aldiz iragartzen dena, (... eta ez al da azkenengoa izango!); halako predikazioen aurrean, atzean gelditu direnak asko eta asko izan baitira, gehienak beren buruaz beste eginda gainera. Eta besteok, zer? Orainartekoan bederen, iragarpenak-iragarpen, salbatu gara non-bait!

Dena-den, guztia nik esan beharrean, zeuri, irakurle, eskatuko nizuke gogoeta egiteko. Hona nik zeuri egindako galdera soil batzuk, atrebentzia ez bada behintzat:

Pentsatzen jarriz gero, egutegia edo kalendariora gizakiak asmatutakoa izaki, zer du ba 2000. urteak 3000.ak (edo beste edozein urtek) ez duenik mundua bertan amaitzeko? Ordenagailu eta beste zenbait aparatu “erotuko” direla, tira; baina lurra? Eta... 2000. urtearekin zorigaitza eta munduaren azkena badator, zertan ari dira ho-

rrenbeste bikote beraien seme edo alaba urte horretan lehenengoa jaio dadin ekinean?

Bestalde, orain dela gutxi izan den “eklipse osoa” eratu eta gutxira, nolabaiteko gertaera beldurgarriak egokitu ziren Ertamerika eta Asia ekialdean; lurrikara eta beste zenbait fenomenok (atmosferikoak?) txikizio eta heriotz ugari ekarri zituzten. Heriotzik merezi al zuten? Gainera... zergatik dago zientzilarien artean, azken urteotan (eta ez lehenago) horrenbesteko jakinmina ea Marten bizitzea zilegi den? Garrantzizkoa ote den zerbait ezkututzen al digute agintari eta ikerlariek? *Francoren hankapelotak!!* ...ez da ba gure lur hau benetan buk...?! Hau horrela izanik... eklipseak hasitakoa, 2000. urteak gauzatuko al du? Gaianean al dugu Apokalipsia? Atera ditzala hortik norberak bere kontuak!!

Egia esan, ez dut inor burutik nahastu nahi, baina, sakon sakonean, behin edo behin (edo askotan... batek daki) zuk zeuk ere mundua amaituko al den galdetu izan diozu zerure buruari. Zeren, azken finean, mundua sortu egin bazen, bukatu ere, bukatu beharko da; gaurik luzeenak ere berarekin baitakar egunsentia.

Neuk, bada-ez-bada ere, esaera zaharrak dioen bezala, ez dut biharko utziko gaur egin dezakedana.

---

Aitor Agiriano



# Urteko jaiotza, ezkontza eta heriotzak

Arrazoi bat edo besteagatik 1999a urte garrantzitsua izan da batzuentzat

## Jaiotzak

- 99-1-4 June Barbero Bengoa
- 99-1-9 Miren Antxia Aizpurua
- 99-1-19 Malena Gonzalez Altuna
- 99-1-23 Maider Errasti Arriola
- 99-1-27 Mikel Zumalde Etxabe
- 99-1-30 Nagore Balanzategi Agirre
- 99-2-12 Ane Paul Manzano
- 99-2-27 Ander Martínez Boyero
- 99-3-1 Saioa Berasaluze Merino
- 99-3-18 Ixak Sarasua Antero
- 99-4-6 Maialen Garay Azkarate
- 99-4-18 Josu Idigoras Merchan
- 99-4-26 Julen Ibabe Etxebeste
- 99-5-2 Joseba Iregi Carrasco
- 99-5-10 Asier Ortiz de Mendibil Jausoro
- 99-5-28 Alaitz Beltran de Heredia Altube
- 99-5-31 Ane Mendizabal Petite
- 99-6-2 Markel Irasuegi Urzelai
- 99-6-5 Uxue Zunzunegi Garcia
- 99-6-14 Ihintz Urkia Gonzalez
- 99-6-26 Leire Arribas Fernandez
- 99-7-6 Juncal Gonzalez Sanchez
- 99-7-18 Aitor Sanchez Ferrera
- 99-8-8 Goiuri Lonbide Testa
- 99-8-12 Adrian Dario Miguel Quintas
- 99-8-14 Juan Antonio Morales Galan
- 99-8-20 Leire Velasco Garcia
- 99-8-26 Alba Egurza Gutierrez
- 99-9-8 Nagore Uribetxebarria Moraleja
- 99-9-9 Ibai Alberdi Jorge
- 99-9-12 Ricardo Barquero Garcia
- 99-10-31 Iaso Zuazua Noguera
- 99-11-8 Lander Astaburuaga Velasco
- 99-11-16 Olaia Alonso De la Varga
- 99-11-23 Maialen Arrizabalaga Arana
- 99-12-3 Andoni Martin Melgar
- 99-12-7 Maitane Dávila Sillero
- 99-12-9 Iratxe Gómez Vales

## Ezkontzak

- 99-1-9 Jon Antxia-Ane Miren Loidi
- 99-2-19 Alberto Ugalde-M<sup>a</sup> Carmen Aranzabal
- 99-3-6 Angel M<sup>a</sup> Calvo-M<sup>a</sup> Jose Ramos
- 99-3-13 Jesus M<sup>a</sup> Prieto-Lorea Goñi
- 99-4-10 Andoni Lopez de Armentia-Jasone Uribealago
- 99-4-24 M. Angeles Garcia-Jesus Ignacio López
- 99-5-8 Jesus Melchor Uribetxeberria-M<sup>a</sup> Jose Moraleja
- 99-5-15 Xabier Basabe-Arrate Arkauz
- 99-5-22 Justo Hernández-Carmen Garcia
- 99-6-5 Jose Urkia-Arantxa Igartua
- 99-6-5 Marisa Miguel-Enrique De Tena
- 99-6-5 M<sup>a</sup> Pilar González-Francisco Gabriel Muñoz
- 99-6-26 Miguel Perea-Monserrat Valdivieso
- 99-7-3 Jose Ignacio Barbero-Itxaso Altuna
- 99-7-10 Luis M<sup>a</sup> Madinabeitia-Ofelia Martelo
- 99-7-10 Eva María Garcia-Agustin Donoso
- 99-7-24 Gorka Aretxaga-Francisca Nieves
- 99-7-24 Juan Pablo Murillo-Idoia Gómez
- 99-7-31 Iñaki Testa-M<sup>a</sup> Pilar Goikoetxea
- 99-8-7 M<sup>a</sup> Carmen Andrés-Iñigo Ruiz-Carrillo
- 99-8-21 Jose Miguel Segovia-Nereida Hernández
- 99-9-4 Felix Arrese-Domi Leceta
- 99-9-4 Estrella Porcel-Jose Alberto Vicario
- 99-9-11 Mikel Rodríguez-Leire Solupe
- 99-9-12 Asier Aranguren-Amaia Garai
- 99-9-18 Nuria Sánchez-Manuel Fernández
- 99-10-1 Francisca Moreno-Antonio Coronado
- 99-10-9 Blanca Saenz-Lorenzo Vicente
- 99-10-10 Roberto Alcalde-Agurtzane Cenciaga
- 99-10-23 Xabier Etxebarrieta-Lierni Altuna
- 99-10-30 Marta Madinabeitia-Miguel Angel Mateos
- 99-12-3 Eneko Aranguren-Beronika
- 99-12-5 Felix Iglesias-Sofia Pérez

## Heriotzak

- 99-1-2 Juan M<sup>a</sup> Ugalde Lizarralde -86-
- 99-1-10 Andres Ramos Andres -83-
- 99-1-15 Jose M<sup>a</sup> Errasti Zugasti -51-
- 99-1-16 Xabier Usandizaga Elizalde -50-
- 99-2-2 Lucia Herrasti Herrasti -83-
- 99-2-3 Ramona Macedo Candalija -73-
- 99-2-9 Victorina Lázaro Rojo -82-
- 99-2-22 Agustin Iturbe Jausoro -92-
- 99-3-11 Fermin Isasmendi Elorza -63-
- 99-3-14 Eulali Barandiaran Cortazar -97-
- 99-3-25 Faustina San Miguel Mazmela -91-
- 99-3-30 Carlos Aramburu Zapata -61-
- 99-4-1 Jose M<sup>a</sup> Izaguirre Arrue -77-
- 99-4-11 Maitane Ugarte Quiroga -4-
- 99-5-5 María González Gómez -94-
- 99-5-13 Maria Pagalday Iñurrategui -86-
- 99-5-19 Filomena Mesonero Sánchez -96-
- 99-5-23 Catalina Madrugas Borreguero -75-
- 99-6-2 Jesus Elorza Ortubay -78-
- 99-6-3 Jose M<sup>a</sup> Uribealago Arana -78-
- 99-6-4 Candido Uriarte Esquibel -75-
- 99-6-10 Rufino Martínez Romero -64-
- 99-7-1 Ramon Altube Arcauz -66-
- 99-7-12 Antonio Arrezigor Otaegi -76-
- 99-7-13 Santiago Santamaria Ajuriaguerra -69-
- 99-7-21 Modesta Etxeberria Arioabengoa -75-
- 99-7-25 Teresa Hernández Nieto -47-
- 99-8-22 Daniel Gutierrez González -76-
- 99-9-1 Prudencia Arratibel Lahidalga -66-
- 99-9-3 Eugenio Uralde Arzabide -88-
- 99-9-12 Francisco Ortiz Trápaga -62-
- 99-9-27 Ana Bengoa Olazabal -29-
- 99-9-28 Pilar Zubillaga Jauregi -79-
- 99-10-8 Francisco Arribas Fernández 52-
- 99-10-15 Isidro Arenaza Arrese -88-
- 99-10-16 Antonia Gómez Ponce -98-
- 99-10-17 Enriqueta Suso Pérez -79-
- 99-10-27 Pablo Eraña Bengoa -91-
- 99-11-2 Dionisio Gonzalo Blanco -66-
- 99-11-8 Rosa López Gonzalez -56-
- 99-11-27 Remigio Gastañaga Garai -57-

Zerrenda honetan ahalik eta gehien izenak jaso nahi izan ditugu, norbait ahaztu badugu barka diezagula hutsa.

Gabon zoriontsuak

**AZKARATE AROZTEGIA**

Tailerra: Mahasterreka, 18  
BERGARA  
943 76 47 19  
ARETXABALETA  
943 77 01 24

**TXILARRA**

**ELIKADURA BEREZIA**

Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15  
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44 28





# 2000. urtearen etorrera

ospa ezazu Hotel Mondragonek eskaintzen dizun giro ezin hobean

## GABON ZAHARRETAKO KOTILIOIA

### Menu berezia:

*Iberikoen aukera*

*Zainzuriak bi saltsatan*

*Foie terrina*

*Vieira betea*

*Otarraitxoak plantxan*

*Marisko krema*

*Kantauriko legatz gorenak*

*Solomillo zentrua*

*Urte bukaerako postre berezia*

*Gabonetako turroi aukera*

*Kafea*

*Etxeko ardo bereziak*

*Cava: Brut Nature*

Barra librea eta piano-bar (zuzeneko ekitaldia)

Prezioa: 16.900 pta pertsonako

\* Alojamentua: 3.500 pta pertsonako logela bikoitzean



# ARRITZEKO, S.L.

Hurrengo etxebizitzak Durana kalean



**27 etxebizitza, lokalak eta garajeak**  
**Santa Kurtz kalean • ARETXABALETA**

Fueros, 26 - 5º Of. 1 • Tfnoa-Fax: **945 230408** • VITORIA-GASTEIZ

A skier in a red and yellow jacket is shown in a dynamic pose, skiing down a snowy mountain slope. The background features rugged, rocky terrain under a clear blue sky. The overall scene is vibrant and action-oriented.

# Loramendi kirolak

Eskiak + fijazioak: 24.995 pta.  
Salomon botak: 16.995 pta.

*Elurak zorutzen gaite!!*

Eskiak konpontzen ditugu

**Arrasate**



# Lehiaketa

Urteari amaiera emateko lehiaketa txiki bat egitea erabaki dugu. Hemen doaz galdera motz batzuk eta zuek erantzun besterik ez dituzue egin behar. Gehienak Aretxabaleta eta inguruari buruzkoak dira, batzuk oso samurrak beste batzuk, zailtxoagoak.

Lehiaketan 18 urtetik beherako atxabaltarrek parte hartu ahal izango dute. Erantzunak abenduaren 24ko eguerdiko 12ak baino lehen Aretxagazetako buzoira ekarri behar dira (Durana, 11).

**SARIAK:**  
 1.- Euskadi-Nigeria partidurako bi sarrera  
 2.- Euskal musikako CD bat  
 \* Partehartzaile guztien artean Aretxagazetako 25 kamiseta zozketatuko dira

Izen abizenak: .....

Telefonoa:.....

- 1.- Zein da Olentzeroren ogibidea?
- 2.- Zein da aratusteetan Aretxabaletako hainbat mutilek egiten duten dantza?
- 3.- Zein hilabetetan ospatzen da Ojala zelai eguna? eta Kurtzebarri eguna?
- 4.- Zein da beheko argazkian agertzen den baserria? eta non dago?
- 5.- Nola duen izena 775 metro inguru dituen Aretxabaletako mendiak?
- 6.- Zer zegoen orain industrialdea egiten ari diren Mendiolako bidearen beheko aldean?
- 7.- Loramendi olerkaria non jaio zen?
- 8.- Nola zuen izena futbol zelaia dagoen tokian zegoen baserriak?
- 9.- Non zegoen lehenengo futbol zelaia?
- 10.- Zein harreman dute Sebitas, Liri eta Txikurik?
- 11.- Nola du izena Ladrillosek?
- 12.- Zer agertzen da Aretxabaletako harmarrian?
- 13.- Zeintzuk dira mendien izenak dituzten Aretxabaletako hiru kale?
- 14.- Nola du izena udaletxea dagoen jauregiak?
- 15.- Beheko gurutzegraman sei auzoren izenak aurkitu behar dituzu.



A	Z	A	T	E	K	L	U	I	L	A	G
R	A	E	S	P	R	N	K	Z	R	O	K
I	Z	B	C	E	J	O	F	U	I	B	T
N	T	N	P	O	R	N	K	R	L	A	R
K	N	O	K	U	O	I	T	I	A	G	O
T	A	Z	E	R	P	R	E	E	M	O	A
S	E	T	O	N	Z	R	M	T	K	R	S
R	R	A	Z	T	R	A	L	A	G	O	R
A	A	T	E	O	N	L	A	R	T	E	O
N	K	B	Z	I	E	S	O	N	Z	T	K
T	A	R	O	Z	A	R	A	K	R	A	R
U	S	I	T	E	G	E	T	E	I	R	A







- Gabonak gogorak egiten al dira hor?

- Ez bereziki, nahiz eta kartzeleroek unea goxotzen ez dute laguntzen.

- Lagun onak egin daitezke?

- Bai, eremu estu hauek lagun-tzen dute bata bestea ondo ezagutzen eta lagun onak egin daitezke.

- Hainbeste urte barruan pasatu ondoren zure izakera edo pentsatzeko era aldatu al da?


- Oinarrian ez, urte hauek neuzkan ideiak sendotzeko balio izan didate.

- Pentsatzen al duzu kalera irtengo zaren egunean? Zer egin nahiko zenuke?

- Ez, oraindik urruti ikusten dut egun hori. Dena dela, hurbilago ikusita ere ez nioke buelta gehiegi emango. Hori bai, pozik aterako naiz. Senide eta lagunekin ospatu eta apaltasunean bizi, Euskal Herria hobeto ezagutzuz.

- Momentu honetan Euskal Herrian dagoen egoera ikusita, itxaropenerako garaia al da?

- Nik uste baietz, batez ere, itxaropen landuaren garaia. Itxaropenak landu egin behar dira bestela ezerezean gelditzeko arriskua dago. Euskal Herria eraikitzeko konziente izan behar gara konpromisoa, antolaketa eta eguneroko lana



Iazko maiatzean Puerton atera zituzten argazkiak argazki kamara ezkutuan sartuta

ezinbestekoak direla eta hortan jarri behar ditugu gure gogo eta indarrak.

- Zer iruditzen zaizu Aretxabaletan sortu den euskal presoak Euskalerriratzeko plataforma?

- Ekimen erabat positiboa dela uste dut. Bai partehartzaileen aniz-

tasunagatik zein orain arte egin dako lanagatik. Partehartzaileen ugaritasunak erakusten digu atxabaltar gehienak euskal presoak Euskalerriratzearen aldekoak direla. Zuek hortik eta guk hemendik bultzatuta ziur nago lortuko dugula. Animu, jarraitu lanean eta agur

**“Partehartzaileen ugaritasunak erakusten digu atxabaltar gehienak euskal presoak Euskalerriratzearen aldekoak direla. Zuek hortik eta guk hemendik bultzatuta ziur nago lortuko dugula”**

beroa Plataformako guztiei.

- Zerbait esan edo eskatu nahi al diezu atxabaltarrei?

- Lehenik, presoek ematen dizkiguzuen maila guztiko laguntzak eskertu. Bestalde, urte amaierako jaiak alaitu igaro, Olentzero oparoa etor dadila denontzat eta bi mila urtea itxaropentsu eta indar berri-tuekin hasteko. Amaitzeko, animatu guztioi, era antolatuan edo bakarka, parte aktiboa hartzeko Euskal Herriaren eraikuntzan. Bakoitzak landu dezagun gure eremua era iraunkorrean eta ez utzi beste batzuegan guri dagozkiguna.



GRAPOko presoak, Javi Martinez (Usansolokoa), Jose M<sup>a</sup> Etxaniz (Bergarakoa), Kepa, Joseba Basterra (Portukoa), Kortadi (Donostiakoa) eta GRAPOko presoak Puerton



## LANA

- ◆ Estetizista behar da. Tfnoa: 943 79 94 39.
- ◆ 5.OHOko ume bati klase partikularrak emateko pertsona behar da. Tfnoa: 943 77 02 92.
- ◆ Emakume bat behar da haurra zaintzeko. Tfnoa: 656 410 008 (gaueko 8ak eta 10ak bitartean deitu).
- ◆ Emakume bat behar da etxe-ko lanak egiteko. Tfnoa: 656 410 008 (gaueko 8ak eta 10ak bitartean deitu).
- ◆ Neska prest zapatu eta domeketan lan egiteko. Tfnoa: 943 79 03 37.
- ◆ Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tfnoa: 943 79 78 35.
- ◆ Arratsaldez alemaneko klaseak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 943 79 00 69, 15:00etatik 18:00 etara.
- ◆ Argia Euskal Herriko aste-kariak eta Antza inprimategiak eta ASP informatika etxeak osatzen duten Ametzagaiña A.I.E. enpresak lanpostu bat eskeintzen du **webgune-arduradun** baten-tzako. Baldintzak: Internet-eko teknologiaz interesatuta egotea. C, Perl eta Javascript progra-mazio hizkuntzen jabe izatea. Erantzunak bidaltzeko: news@ametz.com



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.

## DENETIK

- ◆ Azaroaren 21ean Urkulura doan bidean emakume tankera-ko irakurtzeko betaurrekoak aurkitu ziren, funda eta guzti. Tfnoa: 943 79 10 86.
- ◆ Aretxabaletako kale batean boligrafo dotorea topatu da. Tfnoa: 943 79 73 84 (gaueko 8etatik aurrera deitu).
- ◆ 7tik 11 urte bitarteko ume ba-tentzako mountain bike bizikleta salgai. Prezioa, 15.000 pta. Tfnoa: 943 77 03 98.
- ◆ Rossignol markako snow board tabla salgai, fijazio eta guzti. 1,34 neurria dauka, 10-15 urte bitarteko gaztearentzat. Tfnoa: 616 286 842 (gaueko 8etatik aurrera deitu)
- ◆ "Spaniel breton" arrazako 3 hilabeteko 2 txakur salgai. Tfnoa: 943 79 19 63.
- ◆ Volkswagen Comby furgoneta salgai. Guztiz ekipatuta. Tfnoa: 943 71 49 15, 21:00etatik aurrera.

- ◆ Txakurra eramateko erre-molke berri berria salgai. Deitu 943 77 05 75 telefonora.
- ◆ Kanpindenda kanadiensea eta kotxe gainean eramateko PVCzko kaxa salgai. Tfnoa: 943 79 23 69.
- ◆ Urrezko zintzilikarioa galdu da. Inork aurkituko balu 943 77 17 42 telefonora deitu.
- ◆ Kawasaki GPC 400 salgai, egoera onean. Tfnoak: 943 73 18 72/73 12 82.
- ◆ Pastor Aleman txakurkumeak salgai. Pedigriarekin. Tfnoa: 943 85 32 44 edota 696 057 346.

## ETXEBIZITZA

- ◆ Aretxabaleta edo Arrasaten langile batek gela bat behar du bizitzeko. Tfnoa: 607 798 723
- ◆ Garajea salgai Andra Mari auzunean. Plaza bakarra du. Prezioa 2.300.000 pta. Tfnoa: 943 77 02 27.
- ◆ Lanean gabiltzan bikote batek pisu bat alokatu nahi genuke Aretxabaletan. Lanera deitu mesedez: 943 71 24 00 (Unai Oñederra)
- ◆ 57 m<sup>2</sup>ko garajea salgai Erre-kabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.
- ◆ Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 649 16 86 69.
- ◆ Etxea erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 61 68.

ARETXABALETAKO

ITURGINTZA

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETAKO



FELIX  
PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Maritxu

Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 943 79 23 53

MAITE

ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05  
ARETXABALETAKO



# Uzkur urte edur urte



M. J. Arriabe

“Uzkur urte edur urte”, horrela dio esaera zaharrak. Aurtengo honetan esaerak egia ez dioenik ezingo du gu ukatu. Urrun joan barik Durana kalea uzkurrez jositako egon da eta ziur nago bati baino gehiagori burura jausi ere jausi zaizuela bat edo beste. Elurrak, bestalde, gogor astindu ditu inguruak. Eta hori oraindik neguan sartu ez garela. Guzti hau kontuan izanda, aurtengo edur zaletuak pozik izango ditugu, edurra nahi aina izango dutelako.

Hotzari aurre egiteko squash txapelketako finalerdiak jokatu dira kiroletxean astebukaera honetan eta bertan atxabaltar bat arituko da, **Juan Antonio Varilla**. Jarraitu dezala orain arteko zortearekin, bera izan baita honeraino iritsi den atxabaltar bakarra.

Beste aldetik batzuk kirolik egin ez zuten egin baina Euskal presoak Euskal Herrira plataformak antolatu zuen pilota jaialdira joateagatik sariak jaso zituzten. Zortedunak, **Agustin Ibarluzea “Txispas”** arrasatearra, **Xabier Sarasua** eta **Ibai Luermo** izan ziren. Zozketan Agustinek txandala irabazi zuen, Xabierrek Bergaran izango den pilota partidurako bi

sarrera eta Ibaiek bi txuleta eder eta bi botila ardo. Ez dago txarto, ezta?

Kirolak bakarrik ez, kulturak ere eman digu zer kontatu. **Diego Martiartuk** bere lehen liburua plazaratu du, ipuin labur eta txistez jositako liburua. Askok Durangoko azokan ikusiko zenuten jada, eta besteok, han egon ez zaretenok, hona hemen ideia bat, aurtengo gabonetan zer erregalatu ez badakizue. Honekin jarraituz, gainera, maketazioa beste ezagun batek egin du, **Jon Etxeberriak**. Pozik egoteko moduan daude horrelako lana egin eta gero.

Beste atxabaltar bat ere, **Miren Igartua**, irrifartsu egongo da, Jesus Maria Arizmendiarieta lehiaketan beste bi lagunekin batera lehen saria irabazi baitute DBHn. Zorionak!

Sariak sari, asteburua gainean daukagu eta herrian ere egongo da zer egin eta zer ikusi. Jakin dudanez, bada hor nonbait koadrila bat futbito partidua antolatu duena. Koadrilako **solteroek-pareja** dutenen aurka jokatu dute. Zeintzuk diren ez noa esatera, baina jakin nahi izanez gero, kiroletxera urreratu zaitezke. Gero gauean ligatu guran aterako ei dira kalera pareja ez dutenak, noski, beraz, neskak argi ibili. Batzuentzat inoiz ez ahazteko moduko asteburua izan daiteke eta, nork daki.

Bueno eta honekin aurtengoz bukatu da nire lana. Gabon zorionsua eta urte berri on opa dizuet guztioi, hori bai, ez larregi jan eta deskantsatu ezazue egun hauetan zehar. Ni urte berriarekin batera bueltatuko naiz, urtarrilaren 13n. Gainera, aldizkariak bezala, “look” berria ekarriko dut. Ileapaindegitik bueltatxo bat egingo dut eta... Beraz, urte berria ondo hasi eta hurrengorarte.

## KOMIKIA



Mikel Arriabe

Aretxagazeta



ABENDUA

17

egukotxa

**ANTZERKIA**

**Ñake-Cómicos de la Lengua**  
antzerki taldeak "Cómicos muy peligrosos" antzezlan eskeiniko du. Gaueko 10,30ean Kurtzebarri eskolako aretoan izango da.

**KONTZENTRAZIOA**

Baterak antolatu eta **euskal presoak Euskal Herrira** plataformak deituta kontzentrazioa izango da udaletxe aurrean arratsaldeko 7etan.

18

zapatua

**GALARTZAKO DORRETXEAREN INAUGURAKETA**

Goizeko 10etatik eguerdiko ordu 2etara zabalik egongo da edonork bisitatzeko. Eguerdiko 12etan, berriz, **inauguraketa ekitaldia** egingo da.

Era berean, **txotxongilo eta eskulan erakusketa** ere izango da bertan.

**SQUASH TXAPELKETA FINALERDIAK**

Squash txapelketako finalerdiak jokatuko dira kiroletxean. Goizeko 10etan Alex Etxeberria-Jose Gorosabel, 11etan Juan Antonio Varilla-Eduardo Gallastegi.

**UDA-MONDRA**

Lehen erregional mailako UDA-Mondra partidua jokatuko da Ibarra arratsaldeko 4etan. Bertan Euskal presoak Euskal Herrira plataformak ekintza erreibindikatioa egingo du. Bi taldeak Euskal presoak Euskal Herrira dioen izaraz zelairatuko dira.

**AKORDEOI ORKESTRAREN EMANALDIA**

Arratsaldeko 8etan Parrokian izango da emanaldia.

19

domeka

**MANIFESTAZIOA**

Aretxabaleta, Antzuola, Arrasate, Bergara eta Oñatiko **euskal presoak Euskal Herrira** plataformek antolatu eta Udalen laguntzaz manifestazioa egingo da Arrasaten arratsaldeko 7etan.

**SQUASH TXAPELKETA FINALA**

Squash txapelketako finala jokatuko da kiroletxean. 10etatik aurrera 3. eta 4. postuak. 11etan finala.

**ESKULAN ERAKUSKETA**

Udaletxe zaharrean eskulan erakusketa izango da arratsaldeko 6etatik 8,30etara.

23

eguna

**HITZALDI ZIKLOA**

**Euskal Mitologiaren** inguruan hitzaldi zikloa antolatu du Loramendi euskara elkarteak. Arratsaldeko 7etan udaletxe zaharrean izango da.

24

egukotxa

**OLENTZERO**

Goizeko 10,30etatik aurrera, herriko **haurrek** baserriar jantzita **gabon kantak** abestuko dituzte kaleetan zehar.

Arratsaldeko 6,30ean **Olentzero** aterako da kiroletxetik. Leizarra musika eskolako txistularien laguntzaz herriko plazaraino joango da. Ortzadar taldeak **jaiotza bizia** antolatuko du eta Leizarra musika eskolako haur abesbatzak gabon kantak abestuko dituzte.

27-30

**POXPOLIN PARK**

0-12 urte bitarteko umeentzat **hainbat joku eta tailer** egongo dira **kiroletxean**, ludoteka, ipuin txokoa, ileapaindegia, haur parkeak, txapa tailerra, malabarrak... Goizeko 10etatik ordu batetara eta arratsaldeko 4retatik 7etara (30ean goizez bakarrik).

**Aldi/bi**  
943 71 20 02

**ITURGINTZA**  
**J.J**  
Jose Jabier Irure  
**URA, GASA ETA KALEFAZIOA**  
Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87

**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**  
**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**  
Tfnoa: 943 79 01 51  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
**Lyonel Arquero**  
Dekorazioa:  
**Soraya Arquero**



27-5

URTARRILA

5

eguztena

**NEGU GAZTEA**

12-16 urte bitarteko gazteentzat hainbat **tailer** egongo dira kultur etxean baita **Donostiara txangoa** eta **mag** baten emanaldia ere.

31

eguakotxa

**ALBERTO MAGOA**

12-16 urte bitarteko gazteentzat Alberto magoaren emanaldia. Arratsaldeko 4retan udaletxe zaharrean izango da.

**BIZARZURI**

Arratsaldeko 6,30ean kiroletxetik aterako da Leizarra musika eskolako musikarien laguntzaz.

**KONTZENTRAZIOA**

Baterak eta **euskal presoak Euskal Herrira** plataformak deituta udale-txe aurrean arratsaldeko 7etan.

**ERREGE MAGOEN KABALGATA**

Arratsaldeko 6,30ean Errege Magoak kiroletxetik aterata herriko plazaraino joango dira Leizarra musika eskolako musikarien laguntzaz. Ortzadarrek, jaiotza bizia antolatuko du.

15

zapatua

**TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOAK**

Plisti-plasta antzezlana eskeiniko dute arratsaldeko 5etan kiroletxean. Sarrera aurrez 300 pta. bertan 500 pta.



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Aretxabaleta**

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkarte 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 79 64 61
- Kultur-Etxea 943 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Murrukixo M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

**Udaltzaingoa**

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

**Larrialdiak**

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

**Garraioak**

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 20 20
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15

**Negu kulturalako ekintzak ikusgai**



Negu kulturala izeneko egitarau zabalba aprobetxatuz, aste honetan Atxabalta telebistako kamarak hara eta hona ibili dira ekintza ezberdinak grabatuz. Antzerkiak, txotxongiloak eta sukaldaritza ikastaroa izango ditugu beraz ikusgai eguakotxeko saioan.

Horrez aparte, Atxabalta eza-gutzen saioan, berriz ere auzoek hartuko dute txanda eta oraingoan, Etxebarri auzoari egon diote tarte. Erreportaje honek ohi baino gutxiago iraungo du, auzo honetako alkatearekin elkarrizketa izatea ezinezkoa izan zelako eta auzoaren berri emateko prest zegoen auzokiderik ez zutelako aurkitu.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN



## Arrueneko erregeak

**E**z digute data zehatzik eman baina 1950-1955 urte ingurukoa omen da, Arruenera erregeak etorzen ziren garaikoa. Beroa lan-tegiak, bertako langile eta fami-lientzat erregeen etorrera antola-tzen zuen. Ez gainera nolanhiko erregeak, jantzi dotoreekin eta laguntzaile eta guzti argazkian ikus daitekeen bezala. Errege hauek, langileen artean opariak banatzen zituzten, erlojuak esaterako eta familiarentzat ogitartekoak, turroia eta beste jaki ugari ematen zitzaien. Umeentzat jostailuak ere egoten ziren. Alvaro Zubillagari beti Baltasar erregearen papera betetzea tokatzen omen zitzaion, behar bada duen plata dotoreagatik izango zen.

Ezkerretik eskumara: **Nemesio Arkauz, Alvaro Zubillaga, Javier Aranguren eta Pedro Urcelay.**



Argazkia eta informazioa: Alvaro Zubillaga

### Lasai

Mirian Mantecosa  
MASAJISTA

Lezama merkatal zentrua  
Santa Kurtz, 24 etxabea  
20550 Aretxabaleta

Masaje terapeutikoa  
Postura ezkerketa eta  
egokitzeko  
diplomaturak

Tfnoa: 943 77 04 34



# ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34



# 1.410.000

# saritan

Ibai-Arteko merkatariorik aurtengo Gabonetan 1.000 eta 5.000 pezetako sariak aurkitzeko aukera ematen dizuten txartelak oparituko dizkizugu.

## Zorte on.

<b>Urrats</b> . . . . .	Aholkularitza	<b>Muruamendiaraz</b> .	Gozotegia	<b>Ipek</b> . . . . .	Larrukiak
<b>Ehune</b> . . . . .	Altzariak- apaintzea	<b>Onaindia</b> . . . . .	Gozotegia	<b>Ariane</b> . . . . .	Lentzeria
<b>Etxe Mobiliario</b> . . .	Altzariak- apaintzea	<b>Landaluze</b> . . . . .	Harategia	<b>Nerea</b> . . . . .	Lentzeria
<b>Eya Sukaldeak</b> . . .	Altzariak- apaintzea	<b>Otamendi</b> . . . . .	Harategia	<b>Sikol</b> . . . . .	Lentzeria
<b>Epelde</b> . . . . .	Argazki denda	<b>Parlance</b> . . . . .	Hizkuntza akademia	<b>Titare</b> . . . . .	Lentzeria
<b>Foto Imagen</b> . . . . .	Argazki denda	<b>JG Impresión Digital</b>	Inprimategia	<b>Oihana</b> . . . . .	Lora denda
<b>Ikatz</b> . . . . .	Argazki denda	<b>Anboto</b> . . . . .	Inmobiliaria	<b>Altuna</b> . . . . .	Lurrindegia
<b>Tomas</b> . . . . .	Arraindegia	<b>Izozkitegi</b> . . . . .	Izoztegia	<b>Lore</b> . . . . .	Lurrindegia
<b>Mikel Lasa</b> . . . . .	Aseguruak	<b>Feli janari denda</b> .	Janari denda	<b>Murgoitio</b> . . . . .	Lurrindegia
<b>Seguros Elorza</b> . . .	Aseguruak	<b>Erosle</b> . . . . .	Janari denda	<b>Zabaleta</b> . . . . .	Lurrindegia
<b>Kutxa</b> . . . . .	Banketxea	<b>Kili-Kolo</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Zarraoa</b> . . . . .	Lurrindegia
<b>Euskadiko Kutxa</b> . .	Banketxea	<b>Belem</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Ceciaga</b> . . . . .	Mertzeria
<b>La Caixa</b> . . . . .	Banketxea	<b>Confecciones</b>		<b>Lilura</b> . . . . .	Oihalak
<b>Tokion bazarra</b> . . .	Bazarra	<b>Maza</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Ezarki</b> . . . . .	Oinetako kon- ponketak
<b>Elkoro expert</b> . . . . .	Bazarra	<b>Flash</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Alonso</b> . . . . .	Oinetakoak
<b>Eroski Bidaiak</b> . . .	Bidai agentzia	<b>Gili-Gili</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Beatriz</b> . . . . .	Oinetakoak
<b>Karmele</b> . . . . .	Bitxitegia	<b>Haurtxoa</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Egizabal</b> . . . . .	Oinetakoak
<b>Zubiaga</b> . . . . .	Bitxitegia	<b>Klas</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Totem</b> . . . . .	Oinetakoak
<b>Aldedi</b> . . . . .	Burdindegia	<b>Laket</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Txikiak</b> . . . . .	Oinetakoak
<b>Arregi</b> . . . . .	Enmarkazioak	<b>Lasagabaster</b> . . . .	Jantzi denda	<b>Yoar</b> . . . . .	Oinetakoak
<b>Artea</b> . . . . .	Enmarkazioak	<b>Los Vaqueros</b> . . . .	Jantzi denda	<b>Zabala</b> . . . . .	Oinetakoak
<b>Aranzabal</b> . . . . .	Etxeo tresna elektrikoak	<b>Luko</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Zubia</b> . . . . .	Oinetakoak
<b>Eya</b> . . . . .	Etxeo tresna elektrikoak	<b>Mabel</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Beinke</b> . . . . .	Opari denda
<b>Milar Elkoro</b> . . . . .	Etxeo tresna elektrikoak	<b>Markiegi</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Galeria 44</b> . . . . .	Opari denda
<b>Alai</b> . . . . .	Gozoki denda	<b>Troko</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Garay Saskiak</b> . . . .	Opari denda
<b>Hemen</b> . . . . .	Gozotegia	<b>Ume</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Garagorri</b> . . . . .	Optikak
		<b>Z-R</b> . . . . .	Jantzi denda	<b>Tamayo</b> . . . . .	Paper denda
		<b>Zur-Lur</b> . . . . .	Jostailuak	<b>Portaloí Kioskoa</b> . .	Prentsa /aldizkariak
		<b>Arrasate Kirolak</b> . .	Kirol denda	<b>Kajoi</b> . . . . .	Taberna
		<b>Okendo Kirolak</b> . .	Kirol denda	<b>Lorategi</b> . . . . .	Taberna
		<b>Uriarte Sport</b> . . . .	Kirol denda	<b>Monte</b> . . . . .	Taberna
		<b>Hire</b> . . . . .	Larrukiak		





**ESKANTZA  
BEREZIAK**

**Sofa  
leku**

**HIRU JOKO  
LARRUA  
OIHALA  
3+2**



**GRUPO**  
  
**Amuebladora  
Mondragonesa**